# uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Hilabetekaria · 2002ko urria · IV. urtea · 33. zenbakia · www.uztarria.com


## Madinak kirolean duintasuna eta tratua helburu (3-5)





# PAKO ARISTI, BERE SALTSAN

Idazle urrestildarra literaturaz, Azpeitiaz, politikaz... mintzo (24-28)




alde zaharra

## udazken honetan ere erabili zure bezero txartela




# %10eko deskontua

# ATERA ETEKINA ZURE EROSKETEI!

agirre oparidenda - erdikale, 1 • aintzin - santiago, 8 • astigarraga - erdikale, 21
disdira - elizkale, 1 • egaña - santiago,16 • jone eta maikar - enparan
jostaldi - erdikale, 15 • kimetz - santiago, 6 • martina isasti - erdikale, 10
oinkari - erdikalea, 5 • romaes - elizkale, 11 • trapos decoración - santiago, 5

Azpeitiko alde-zaharreko Merkatarien Elkartea • eliz kalea • 943-151786

Batasuna legez kanpo. Azpeitian nola daude kontuak? (13)

Imanol Elias, liburuxka biogafikoa. Pasarteak. (34-35)



Klik! Itsasiren 25 urteko ibilbide luzea argazkitan (40-42)



Jaione Badiola Wroclaw-n. (46)


uztarria



Xabier Madinak bere kirol bizitzan domina ugari eskuratu du. Gaur egun, eguneroko bizitza eta kirol bizitza uztartzen saiatzen da

# KIROLEAN DUINTASUNA HELBURU

Xabier Madina, atletismoko lehiaketa batean parte hartu aurretik. / UZTARRIA



**datua**

● **13 URRE.** Xabier Madinak arrakasta asko lortu ditu, orain arte urrezko hamahiru domina irabazi dituelako.

Nerea Aranburu / Donostia

Astearte arratsalde batez egin genuen hitzordua Xabier Madinarekin eta Amue Elbarrituen Kirol Elkartekoekin, Donostian. Hilabete batzuk lehenago, Xabierrek bi domina lortu zituen: Lleidan, Espainiako Slalom Txapelketan lehen postua, eta astebete beranduago, Madrilen, Espainiako Atletismo Txapelketan garaile izan zen.

Xabier betidanik kirolaria izan da. 1989-1990. denboraldian sartu zen Aspace taldean, baina gero utzi egin zuen. “Nire kasa jarraitu nuen, Amue taldea sortu arte”. 1998tik, Amue Elbarrituen Kirol Elkarteko sortzaile eta kide da Xabier. Amue Taldea sortzeko, batez ere, bi arrazoi izan zituzten: “Duintasuna eta tratua”. Xabierrek berak garrantzia ematen dio horri. “Kirolean garrantzitsua da erabakiak hartzeko askatasuna izatea, inori azalpenik eman gabe. Askatasuna gauzak erabakitzeko, entrenatzeko, lehiaketak hautatzeko eta abar”. Taldekoen ustez, “egiten dituen ▸▸



seetara, astean behin edo. "Klasetik atera orduko, Azpeitira, etxera joateko telefonoz deitu behar izaten nuen plataforma zuen autobusa jartzeko eskatuz". Gero, ordea, Donostian, Antiguan auzoan, familia bat ezagutu zuen eta haien etxean gelditzen zen aste osoan. 1992ko abuztuan hantxe, Ondarretan, aterbea ireki zuten eta urrian aterbera joan zen bizitzera. "Aterbea ondo zegoen. Han sei urte igaro nituen. Aterbea ireki aurretik Donostian ez zegoen horrelako ezer. Beraz, aterbearen irekiera ondo etorri zitzaidan".

Gaur egun, Donostiako Intxaurrondo auzoa du bizileku, Txara hain zuzen. Txara Intxaurrondon dagoen egoitza da. Bi bloke ditu: bata zahar-etxea eta eguneko zentrua da; bestea, apartamentuz osatuta dago, balioanitzeko apartamentuz. Xabier bertan bizi da. "Bakoitzak apartamentu txiki bat dugu. Nahi dugunean irten eta sartzeko aukera dugu, ez diogu inori azalpenik eman beharrik. Alde horretatik askatasun osoa daukagu. Gero, laguntza izaten dugu, garbiketa egiteko eta abar". Apartamentuak logela, bainugela eta beharrezko tresnez osatuta daude.

**KIROLARIA.** Gaur egun, Xabier Madinaren bizitza beste edozeinen modukoa da. Egunez lanean dihardu, berak sortutako enpresan, baina kirola alde batera utzi gabe. Ohiko lehiaketak asteburuetan izaten ditu. "Hala ere, autonomia arteko probak astegunetan antolatzen dituzte. Hauetan EAEkook, nafarrek, errioxarrek eta beste hainbatek hartzen dugu parte". Zortzi mailatan banatuta daude. Laugarrengo maila arte aulkian ibiltzen direnak dira eta hortik aurrerakoak beren gisara gehiago moldatzen direnak. "Baina garbi ikusten da maila baxuetako kirolean borroka handia dagoela", diote Amue taldekoek.

> "Egunero jasaten ditut begiradak, keinuak. Ezin dut beti kontu horien menpe egon" **Xabier Madina** (kirolaria)

gauzei eta probei duintasuna ematea da taldearen helburua. Gustuko kirola behar bezala egitea, beste edozeinek egiten ohi duen moduan, hori egin ahal izateko ahalmena eskaintzea da taldearen zeregin nagusia".

Amue Kirol Elkartearen antzeko esperientziak urriak dira elbarrien kirolean. Madina da elbarrien kirolean ohiko bidetik atera den bakarrenetakoa, eta arrazoi nagusia "kirola serio hartzea" dela dio. Beste kasu batzuk ere ba omen dira, "betiko *eskemak*" apurtu nahi izan dituztenak, baina gutxi. Amueko arduradunen esanetan, "elbarrituen kirola irudi huts bat da gaur egungo gizartean. Askotan, elbarrituen kasuan kirola bigarren mailan jartzen da". Elbarrien kirolean kontuak apurka aldatzen ari badira ere, egiteko asko dagoela diote Amuekoek. "Oraindik elbarrituen inguruko albisteei tratamendu berezia ematen zaie".

Xabier Madinaren kirol mundua oso lotua egon da bere bizimoduarekin. "Egunero jasaten ditut jendearen begiradak, keinuak eta abar. Baina bakoitzak bere bizia egin behar du. Ezin dut beti kontu horien menpe egon", dio Xabierrek. Baina, bere izaeragatik, egoera horiei aurre egin die. "Xabier bai Azpeitian, bai koadrilan, beti joan da horrelako egoeren aurka. Kalera ateratzeko ez du inolako arazorik izan, jendearekin ere erlazionatzeko aukerak ditu. Beste edonork bezalaxe jokatu du". Hala ere, Xabierrek garbi du inguruko jende askoren laguntza izan duela. "Etxekoen eta jende baten aldetik laguntza handia izan dut: koadrilakoena, lagunena... Beti da garrantzitsua laguntza izatea, baina baita laguntza nondik datorren ikustea ere".

**AZPEITITIK DONOSTIARA.** Xabier Madinak batxilerreko ikasketak bukatu zituenean unibertsitatean Informatika ikastea erabaki zuen. Horretarako, Donostiako fakultatera joan behar zuen. Unibertsitateko lehen urtean ez zen askotan joaten kla-

Kirolean anekdota asko gertatu zaizkio Xabierri. Handiena, Ingalaterran, Europako probak jokatu zirenean. Amue taldekoek ondo gogoan dute: "Hura historikoa izan zen. Elbarrituek probetarako erabiltzen dituzten aulkien gurpilak neurri zehatzekoak dira. Hara joan eta zer esango eta Xabierrek bi gurpilen neurriak gaizki zituela! Hiru urtez, Espainiako txapelketetan ibili zen eta inork ez zion ezer esan. Azkenean, nola edo hala, soluzioa topatu zuten eta Xabierrek lasterketan parte hartu ahal izan zuen; baita irabazi ere".

Xabier Madinak kirolean garaipen asko lortu ditu, hainbat urrezko dominaren jabe baita. Munduko errekorrak ditu eta Europako txapelduna ere izan da.

# Askatasuna teknologiaz




Informatikako ikasketak bukatzear zituela, azkenengo ikasturtean, Xabier Madinak proiektu bat zuen buruan bueltaka. Gaur egun, berriz, buru-belarri murgilduta dago proiektuan. Disfuntzio larriak dituzten pertsonei zuzendutako proiektua da. Arazoak dituen pertsona orori ordenagailuz edozein mezu eta testu antolatzeko edo osatzeko bideak erraztea du ardatz proiektuak, betiere ahal den modu eraginkorrenak eta baliogarrienak erabiliz. Hori horrela izanik, disfuntzioak dituzten pertsonek eguneroko bizitzan hainbat gauza egiteko aukera izango lukete; hala nola, musika entzun, bideoak ikusi, e-mailak bidali, interneten nabigatu eta abar.



Xabier Madinari orain dela urte batzuk sortutako ideia, denborarekin garatuz joan da eta dagoeneko proba batzuk ere egitea posible izan da, eta emaitza onak jaso ditu. “Proiektu honekin lortu nahi dudana da zera da: gu bezalako pertsonek teknologia erabiliz gure askatasun pertsonala lortzea gauzak egiteko orduan, eta gai izatea eguneroko bizitzan hainbat gauza egiteko; besteak beste, jende askorentzat hain sinpleak diren gauzak: ordenagailuan idaztea, musika entzutea, DVDak ikustea, eta abar”, dio Xabierrek.




**iritzia** Pablo Domínguez (Amueko kidea)



## DUINTASUN PIXKA BAT, MESEDEZ

Zeinen zirraragarriak eta faltsuak diren telebistak saltzen dizkigun kirolari elbarrien irudiak. Irudiak hainbesteko indarra duen gizarte huts honetan, elbarriak sentsibilitate iturri bihurtu zaizkigu elbarritasunik pairatzen ez dugunongan (edo, *normalongan*?). Irudiotan, izan ere, kirolarekin zerikusirik ez duten sentimen batzuk indartzen dira: “Hor ari dituk *gizagaixo* horiek beren ezintasunari aurre egiteko ahaleginean!”. Beren ahaleginak miresmena sortu beharrean pena ematen digu askotan (gogoratu, bestela, Gabonetan ETBk kirolari elbarrientzat dirua biltzeko antolatu zuen tonbola).

Elbarrien kirolak sortze beretik bi bide jorratu ditu; batak, elbarritasun zehatzetarako aktibitateak sortu ditu (slalom-a garun-paralisia dutenentzat, kasu) eta, bestea, jada sortuta dauden kirolak elbarrientzat egokitzen saiatu da (lurrean eseritako boleibola, esaterako). Jokabide horrek, ordea, nire ustez, hanka-sartze batera eraman gaitu historikoki: guztiontzat berdintasun guneak sortu beharrean (jokoak, kirola, taldea...) *normalen* eta elbarrien arteko harresia areagotu du. Eta kirola bera, batzaile baino baztertzaile bihurtu da.

Banatzaile, elbarritasunak gizartean talde ezberdin bat izatearen sentimendua areagotzen duelako, eta baztertzaile, elbarrien kirola guztiz egoera marginalean bizi delako gainerako kirolarekin alderatuz. Ez dago kirol ekitaldirik ez txapelketarik guztiok elkarrekin parte hartzen dugunik; hasi herrialdeko txapelketa xumeenetik eta Olinpiar Joko-Paraolinpiar banaketa lotsagarriraino. Eta badirudi, gainera, elbarritasunen bat pairatzen duen hura gizartetik aparte aritzera kondenatua dagoela eta horixe dela, hain zuzen, normaltasun egoeraren adierazgarri zuzena.

Pertsona orok, pertsona den momentutik, duintasun minimo batekin bizitzeko eskubidea omen du, baina elbarriek ez; hauek gizarteratu egin behar dute (edo ditugu) beraiena ez den mundu batean sortuak izan balira bezala. Pentsa zenbaterainokoa den bataren eta bestearen arteko desberdintasuna, gure artean bizi ahal izateko legeak behartu behar izan gaituela eraikin eta zerbitzuak guztiontzat egokituak egon daitezen. Baina, zeren zain gaude gure burua egokitzeko? Horretarako ere legeren bat sortu behar ote dugu?



Xabier Madina, Mikel Abaunz eta Pablo Dominguezekin. / Uztarria

amuko zubitik Mikel Arregi



# BORTXA POLITIKOA

Urte bat beteko da gure artetik Txapi, Jabi eta Xegu joan zirenetik. Batzuek esango dute euren borondatez joan zirela, baina ez dut uste horren bide zaila borondate hutsez aukera daitekeenik. Herri honen konponbiderako bidean, euren lana norabide zehatz batean kokatu dute. Jendeak gogor hitz egiten du beraiei buruz, bortizkeria erabiltzeagatik. Baina azken asteotan argi gelditu den bezala, biolentziaren erabilera ez dago esklusiboki ETAren esku. Edo alderdi politiko bat *hiltzea* ez ote da ba biolentzia? Epaile baten erabakiz, hurrengo urtean egingo diren udal hauteskundeetan, Azpeitian sei zinegotzi dituen EHk ezingo du aurkeztu. Arrazoia: ETAren atentatuak ez salatzea; adierazpen askatasunaren barnean isilik egoteko eskubideak ere izango du ba tokia!

Eta EAJk, eta EAk, adierazpen askatasunaren aurkako eraso hori indartu dute, esaterako irailaren 14ko Bilboko manifestaziorako hartu zuten erabakiarekin, baita azken urteetan Ezker Abertzalea baztertzeko erabili duten *apartheid* politikoarekin ere. Urrutira joan gabe, gure herrian, EH alderdiari botoa eman zioten 2.923 azpeitiarri bizkarra eman diete Azpeitiko EAJk eta EAk, EHko ordezkariak politikoki guztiz isolatuz. Eta jarrera hauek guztiek Garzonen bidea leundu besterik ez dute egin. Ilegalizazioarekin, edo ilegalizaziorik gabe, guztien helburua Ezker Abertzalea baztertzea izan da.

Bi aldeetatik datorren biolentzia salatze hutsak ezertarako ez duela balio pentsatu izan dut beti. Ondorioz, ia denok desio dugun egoera berri baterako jauzia eman ahal izateko, helburu, epe eta bitarteko zehatzak planteatzeko ordua iritsi da.

Alde bakoitzak bere jarrera zintzoki planteatuz bakarrik gainditu ahal izango da ia denentzat zaharkituta omen dagoen eta biolentzia eguneroko ogi duen marko hau. Horretarako, ordea, diskurtsoa eta eguneroko jarduna bateginik joatea ezinbestekoa da.

azketako ude Kepa Susperregi



# UDAN EGURALDI ETA POLITIKAN LAINO HERTSIA

Amaitu berria dugu uda garaia, aspalditxo amaitu ziren amestutako opor egunak, eta hemen gara, berriz ere, eguneroko zurrunbiloan murgildurik: eskola, lantegi, elkarte eta kaleetan. Eguzkia ikusi eta eguzkiaz gozatzeko gogoz, eguzki gosez ginen uztaila amaieran eta horrelaxe igaro genuen abuztua ere, beti heltzear zen eguraldi bero eta eguzkitsuaren zain, hodeitsu.

Eguraldia ilun samarra izan bada, beste hainbeste esan beharko dugu gure Euskal Herriko giro politikoaz ere. Uda garaiak eta opor egunak patxada pixka bat eskainiko zuten ametsa (edo gogoa) bagenuen ere, ez dugu horrelakorik ezagutu. Laino hertsia nagusitu zaigu. Eta kezkaturik gaude.

Letra hauek idazten ari naizen egun berean, Txema Urkijo, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendariari eginiko elkarrizketa aurki genezake egunkari batean. Bizi dugun egoera larria dela aitortzen du, “politikoen arteko giroa, maila pertsonalean ere, asko usteldu delako. Eseri, elkarrekin hitz egin eta arazoari sustraitik heltzeko inguru girorik ez dago. Beharrezkoa da gelditu eta gogoeta egitea”, esanez.

Duela lau hilabete, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko gotzainek elkarrekin idatzitako idazkian, “adostasun eta harreman ezaren menpe” bizi ginela aitortzean, beste hau ere aipatzen zuten: “Gure ustez desadostasun politikoa, neurri handian, harreman faltak ekarri du eta horren ondorio ere bada”. Ezin gara komunikaziorik ezean setati kokatu.

Udazkenean aurrera goaz. Ezagunak ditugu urte sasoi honetan ere egun eguzkitsu eta epelak. Gozatu eta baketuko ote zaigu gure arteko giro politikoa bateratze ekimenez, elkarri eskainitako elkarrizketa eta harreman eguzkiz?

puntie ateaiez
Enekoitz Esnaola

## FATXADAREN ATZEA

**Soziologoek diote eraikin baten atzean zer gertatzen den jakiteko fatxadaren atzera jo behar dela, fatxadari begira geratu gabe. Azpeitiko Udala, erakunde bezala, fatxadari begira baino ez da geratzen ETAren atentatu baten ondorioz pertsona bat hiltzen denean; azkeneko aldiz irailaren 25ean, guardia zibil bat hil zutenean, kontzentrazioa eginez.**

**Konponbidearen bila jo behar da, fatxadaren atzera joan, bestela salaketek ez dutelako ezertarako balio, zilegi izan arren. Benito Lertxundik ederki dio: “Gatazka norbera dela onartzean egingo diogu gizarteari ekarpen iraultzaileena”.**

**1931n, Lizarran, Estatutu soberanista zela-eta Azpeitiko Udalak asko hartu zuen parte. Gaur, egoera lazgarrietan (batzuetan), kontzentrazioak egitera mugatzen da; konponbide politikoaren bidean pausorik ez ematera.**

bota bertsue
Laxaro Azkune
(2002-04-28)

## NUARBETARRAK

Nuarben ez da falta
sastraka nahiz garo, (bis)
gaztaina ta haritza,
lizar ta pago.
baserri lanerako
lur onik ez dago
hargatik zesteroa
izan da oparo,
etxe baten bestean
baino abilago. (bis)

Gauza sakratua da
lur honetan kirola. (bis)
Erreka honek badu
horretan odola.
Jakina da aizkoran
izan den ezkola,
harri jasotzaileak
ez ahaztu inola,
baina sokak sorgindu
ta gainera nola! (bis)

**otso beltz** Andoni Salegi




**TRIKU FESTA.** Herriko eta kanpoko musika taldeak, doinu desberdinak... ikusi eta entzun ahal izan dira Urrestillakoek eta Zubi Zarrekoek antolatutako I. Triku Festan. Giroa paregabea izan da. Zorionak!

**ENPARAN KALEA.** Enparan kalean oinez ibiltzea oso zaila gertatzen da goiz partean. Aldamenetan autoak aparkatuta eta beste batzuk martxan. Eta, *jakina*, beti oinezkoek baztertu behar.

**UDAL HAUTESKUNDEAK.** Batasuna legez kanpo utzi eta hartzen ari diren azken erabakiak tarteko, 2003ko maiatzeko udal hauteskundeetan Azpeitian ere zer egin behar dute esparru horretako botoemaileek?

**gutunek**

# Agur, Belatxe!

Isildu duk hire txistua. Isilean duk, milaka eta milaka puska jaso eta hire aginduetara doinu alaiak bezala sentikorrak atera ondoren urteetan zehar. Ez duk behar izan tresna handirik heure tokia egiteko gure *Herri zahar* honetan, baina hizkuntza bezala beraren ezaugarri bat hire arma: txistua. Hortik aurrera, hire gain egon duk guztia eta jakin duk hire irakaslea izan zen Andoni Albizuri *Katxo*-k bezala, bizitzaren zati handi bat *Herriari* eskaintzen.

Azpeitian, hire jaioterrian, antzinatik gaur egunera bitarteko paperak aztertzen ahalegindu nauk urteetan zehar eta aurkitu baditut ere bertan izandako txistulariak, hire izena behin bakarrik aurkitu diat idatzirik, 1975ean, eta herriko txistulari taldea osatuz, Juan Gurrutxaga eta Inazio Beristainekin batera eta, gainera, oso denboraldi motzerako. Ez baituk izan hire karrera kobratuta egiten den horietakoa, baizik eta ezerezean eginikoa eta behar zen tokian agertuz behin eta berriz, baita muturrekoak eskaintzen zirenean ere ordaintzat zenbait doinu herrikoi zabaltzean, herrietako kaleetan ez ezik mendi gailurretan. Lagun ezinhobeak izan dituk horretarako eta beraien artean nire anaia Joxe Inazio eta *Leaxpi*. Beraien doinuak entzungo dituk orain *Katxo*-rekin batera, bion txistuak isilean badira ere.

Nahigabez nauk, txistua isilean gelditzean. Nahigabez, gure *Herri zaharraren* identitate guztiak zapaltzea nahi den unean, isilean gelditu delako hire txistua. Baina aurkitzen haizen tokian aurkitzen haizela, mila esker Kruz Mari Frantzesena!

Imanol Elias Odriozola

# Hurrengo arte, Belatxe

Ez duk erraza izango guretzat une honetan sentitzen duguna adieraztea, baina hainbeste zor bazagok hirekin eta saiatuko gaituk.

Lau lagun txistulari banda baten osagarri izan gaituk urte askotan, Zarautzen. Txistu jotzen ibili gaituk Euskal Herrian zehar, eta inoiz bertatik kanpo ere bai (gogoratzen al duk Argentinako ibilaldia?), baina, batez ere, auzo, kirol elkarte, mendigoizale, eta herri mailan sortzen joan diren mugimenduetako txistulariak izan gaituk. Batzuentzat bigarren dibisiokoak, baina gu beti harro sentitu gaituk paper horretan. Maitatuak sentitu gaituk herrian, eta hori ondo nabarmendu duk hire hiletak izan direnean.

Gelditzen garen hirurok jarraitzeko aukera diagu, batez ere hire maisulanaren ondorioz talde eder bat sortu delako Zarautzen. Orain igande goizetako kalejiretan hamar-hamabiko taldea biltzen gaituk. San Inazio egunean, Azken Portun, urtero bezala *Martxa* jotzen ibili gaituk, eta batek baino gehiagok negar malkoak isuri zitian hirekin gogoratuaz.

Azpeitiar jatorra, jendea zirikatzeko, taldeko beste azpeitiarraren osakide ezinhobea, lagun aparta. Ez ditiagu hemen jarriko bizi izan ditugun pasadizoak; horiek guretzat gelditzen dituk, gure oroimenerako.

Abiatu haiz, kalejira joaz, txistularien kabira, eta bertara iristen haizenean, laster hasiko haiz taldea osatzen. Orduan gogoratu hadi gurekin; hemen inor ez duk betiko, eta gu ere kabi horretara iristen garenean, talde horretan jo nahi diagu. Bien bitartean, hemen saiatuko gaituk hik utzitako hutsunea betetzen, nahiz eta oraingoz lan hori ezinezkoa iruditu.

Besterik gabe, hitaz inoiz ahaztuko ez direnak: Elias, Josu eta *Legaxpi*.

Josu Arruti Urdangarin
(Zarauzko taldearen izenean)

# Triku Festakoei

Igande arratsaldean, tabernetan futbolari begira egon beharrean musika ederraz gozatzeko aukera emateagatik, zorionak! Musika aukera bikaina, era xumean. Asmatu duzue.

Miren Mendizabal

**akullue**



Leire Ostolaza

## JOLASERAKO ASTIRIK GABE

Ikasturte berria hasi dugun honetan haurrak ikus ditzakegu motxila erraldoiekin ikastolara bidean. Normalean urte zoriontsuak bezala gogoratzen ditugu haurtzarokoak, baina ez pentsa erraza denik gaur egun ume izatea.

Goizeko bederatzietan hasiko dute lehen ikastordua eta laupabost ordu emango dituzte gai ezberdinak jorratuz. Pare bat ordu bazkaltzeko, ez badu tarte hori ingelerako *klase partikularren* batek mozten, eta berriro ikastolara babak eztarriko zuloan dituztela.

Arratsaldekoa pare bat orduko ekitaldia da, arinagoa gehienetan, eta amaitzean motxila hartu eta ogitartekoa janez eskolaz kanpoko jardueraren batera abiatzen dira presaka. Hori gutxi balitz, kirola egiten dute eta arratsaldeko zazpiak aldera etxera doaz beren motxila eta guzti. Pentsa ume horrek etxeko lanak egin behar dituela eta afaldu, eta konturatu orduko gaueko bederatziak iritsiko zaizkiola.

Azkenaldian asko entzuten da gaurko umeek komunikatzen ez dakitela, hitz egiteko eta harremanetarako lotsatiagoak direla. Nire ustez, harritzekoa ez da; izan ere, jolaserako denborarik ez zaie geratzen *ejekutiboen ordutegi* horiekin.

**inkestie**

## Zer moduz hasi da 2002-2003 ikasturte berria? Gogoz hasi al da?



### Mari Jose Agirre
(gurasoa)

**"Ikasturtea ongi hasi dela esango nuke.** Egia esateko, guraso bezala ikasturtea hasteko gogo pixka bat ere banuen. Hainbeste egun opor izan eta gero, nik uste dut seme-alabek azkenerako eskolara joateko gogoa izaten dutela".

### Naiara Etxeberria
(ikaslea)

**"Ikasturtea ondo hasi dela esan beharko.** Aurten irakasle berria izango dugu eta ikasturte ha-

**zer diyo?**

# AMA/AITA! JOLASTU NAHI DUT!

Hasi da ikasturte berria gaztetxoentzat, eta bere neurrian aurre egin behar diete ardurei. Hiru hilabete eta gero, bat-batean egoera berri bati aurre egin behar diote (irakasle berria, maila bat gehiago, etxeko lanak...), eta hori guztia antsietatez bizi ez dezaten, helduok umeengandik gertu egon behar dugu, eta beraien jarrera zein den ikusi, egoera berriari ongi egokitu daitezen.

Hemendik aurrera, eguna antolatzen diegu eta, ahal den neurrian, nahi izango dugu hauek denbora alferrik ez galtzea. Goizean eskolara bidali eta ia sei ordu (jangelako orduak kenduta) igaroko dituzte, dagozkion betebeharrak bete, eta kalera, hau poza ume askorentzat. Hainbat umerentzat ordu horiek nahikoa eta gehiegi izaten dira; txirrina entzun bezain laster mahaitik jaikitzen dira jolastera joateko. Umeek, berez, jolastea nahi izaten dute, elkarrekin jolastu, eta eskola orduekin ahaztu, baina (intentzio onarekin bada ere) denbora murriztu egiten zaie eta kurtsoan zehar hainbatek ezingo dute nahi duten eta behar adina jolastu.

Guraso asko, intentzio onenarekin, saiatzen dira denbora libre hori ere beste eginkizun batzuekin betetzen, haurraren ezagupideak handiago izan daitezen. Horregatik hainbat ume, eskolatik irten eta musikako klasetara, entrenamendura, ingelesera, katekesira, informatikara... doaz. Berez eginkizun horiek ez diote kalterik egiten umeari, ona izan daiteke baina bere neurrian. Askotan ahaztu egiten zaigu zein den istorio hauetako protagonista, eta ez gara jartzen bere tokian. Gaurko ume asko eginkizun gehiegitan murgilduta dago, eta gezurra badirudi ere horrek ondorio kaltegarriak izan ditzake. Umeak eman dezakeena baino gehiago eskatzen badiogu eta beti kontrolpean badago, argi!: antsietatea, fustrazioa, inseguritatea garatu daiteke, autoestimu faltaren iturri izan daiteke. Egiaztatuta dago, ume askok estresa dutela hau guztiagatik, horregatik helduok umeari atzeman behar diogu nola dagoen, berekin hitz egin, bere lekuan jarri, eta bere kasa jolasten utzi.

Askotan gehiegi zentratzen gara umeen emaitza eta ezagupen kopuruan, eta argi izan behar da ume baten garapenean beste arlo asko izan behar direla kontuan. Ezinbestekoa da umearen hezikentan jolasaren jarduera ere kontuan izatea, iruditzen zaigu jolasak ez duela ezertarako balio, eta ez duela inongo garrantzirik garapenean, horregatik nahiago dugu umea kontrolatuta eduki, eta aurrez programatutako ekintza batean ikusi, bere kasa jolasean baino. Irizpide hori errespetagarria bada ere, ez da zuzena. Horrek ez du esan nahi ez zaienik uzten, baina ez behar adina eta ez oso konbentzituta. Jolasak izugarrizko garrantzia du umearen garapenean. Zergatik? Jolas espontaneoak sormena garatzen duelako, ume askok eskolatik dakarten antsietatea jolasarekin askatzen dute, plazerra sortzen die, beren burua ezagutzen joaten dira, nortasuna garatzen dute besteekin jolasean, eta bere buruarekiko ziurtasuna hartzen joaten da, gauza berriak ezagutzen ditu, iniziatiba garatzen du, eta beretzat zentzua duten arauak onartzen ikasten du... Horregatik eta beste arrazoi batzuengatik da hain garrantzitsua jolasa.

Umeari exigitu egin behar zaio, baina adi egon behar dugu ekintzekin itsutu gabe. Askotan bere kasa jolasten dutenek gerora emaitza hobeak dituzte, eta ekintza gehiegi dituztenak, aldiz, lehen aipatutako arazoengatik pott egiten dute.

Iñaki Sanchez (irakaslea)

siera ona izan da, ez baitugu egiteko gauza askorik izan. Gainera, lehen bi asteetan goizez soilik izan ditugu klaseak".

## Arantxa Etxeberria
(gurasoa)

**"Ondo hasi da ikasturtea.** Nik haurra aurten hasi dut eskolara. Hasieran pena pixka bat eman dit, baina eskolara joan beharra dago. Gainera, nik lana egiten dut eta ordu horietan norbaitek haurra zaindu beharrean, haurra eskolara doa. Eskolako lehen egunak izateko nahiko ondo moldatu dela uste dut".

### UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTAK

**1. GALDERA: Lanordu eta ikastorduetatik kanpo zein ikastarotan hartzen duzu parte?**

- **Kirola:** %13,5
- **Musika:** %51
- **Hizkuntzak:** %8
- **Eskulanak:** %4
- **Dantza:** %8
- **Antzerkia:** %2
- **Beste batzuk:** %12,5

## Christian Villanueva
(ikaslea)



**"Oso gustura hasi naiz eskolara.** Aurten laugarren maila egingo dut. Nahiz eta oporretan oso gustura ibili naizen, eskolako lagunekin futbolean ibiltzeko ere gogo handia nuen".

## Jon Garmendia
(ikaslea)

**"Ez nuen gogorik eskolan hasteko.** Baina ikastolako lagunak ikusteko gogoa banuen".

## German Loiti
(ikaslea)



**"Gustura hasi naiz.** Eskolan gehien gustatzen zaidana lagunekin jolastea da. Ondo pasatzen dut eskolan".

## Beñat Garmendia
(ikaslea)



**"Nahiko ondo hasi naiz.** Oporretan gustura egoten da eta luzeagoak izanez gero askoz hobeto. Hala ere, lagunak ikusteko gogoa nuen".

> "Gaurko ume asko eginkizun gehiegitan murgilduta dago eta ondorio kaltegarriak izan ditzake horrek"

> "Helduok umeari atzeman behar diogu nola dagoen, hitz egin berekin eta bere kasa jolasten utzi"

> "Umeari exigitu egin behar zaio, baina adi egon behar dugu ekintzekin itsutu gabe"

# postako eztabaidie

**GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren web guneko 'eztabaidan' atalean asteburuetan kalean jende gutxiago dabilela-eta sesioan dabiltza kide batzuk. Hona hemen gutun horietako sorta bat:**

## Eguneroko kontua

Kontua ez da asteburuetakoa. Egunerokoa da. *Bizitza soziala* galtzen ari da Azpeitian eta inkomunikazioaren bizitza gailentzen.

Irauli

## Tabernak garestiak

Eta zer nahi dugu? Tabernetan zerbait hartzea garestia da eta gazteei dirua falta zaie.

Ni

## Jendea kanpora doa

Irailaren erdialdera hasten da jendea kalera irteten. Aurreko larunbat batean giro polita zen, nahiz eta zenbait herritan jaiak izan. Larunbatetan jende gutxiago ez dabil; jendea banatu egin da, horren adibide beheko tabernetan gehiago dabilela da. Etxe-Zuritik Urtzira arte zenbat taberna dauden kontatuz gero, denak betetzeko beharrezkoa den jendetza izugarria da. Larunbat arratsaldetan gazte asko Elgoibarrera joaten da eta igandetan Hernanira. Azpeitian geldituko bagina (larunbatean eta igande arratsaldeetan) egundoko giroa sortuko genuke eta pixkanaka kanpoko jendea ere etorriko litzateke.

Nik lagun asko ditut kanpotarrak eta harrituta gelditzen dira Azpeitiko giroarekin eta jendearekin. Urrestillak eta Zubi Zarrek antolatutako ekimena egokia iruditzen zait. Zorionak bi taldeei.

Bestetik, alde zaharra indartu egingo litzateke oinezkoentzako egokituz; plazak pena ematen baitu, aparkaleku moduan ibiltzen dugulako.

Iepa Lagunok

## Giro itxia

Jende gutxiago ibiltzen dela egia da. Nire ustez, arrazoi nagusiak hauek dira: taberna guztiak berdinak dira, musika bera, jende bera... ez dago ezer alternatiborik. Eta giroa itxia da.

Bort

## 'Magia' berezia

Egia da gero eta jende gutxiago dabilela, eta zer? Ni tabernan lau katu baldin badaude ere gustura nago, bestela hor daude herrietako jaiak. Azpeitiak *magia* berezia dauka, jende mugitua eta festazalea da, baina kontu batzuetarako lotsatia da, jendea ezagutzeko, ligatzeko... Emaitza: jendea ez balitz lotsatia izango Azpeitia izugarria litzateke.

Sapatue

**hausnartzen**

**GAIA: 'Kultura'. Nolakoa da herriko kultur dinamika? Kultur etxea beharrezkoa al da? Beharrezkoa bada, nolakoa? Zeinentzat? Zer da kultura?...**

**Oharra:** hurrengo aleetan ere eztabaida hau plazaratuko du Uztarriak; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

# NOLAKO KULTUR ETXEA NAHI DUGU?

Orain dela 50 urte pasatxo, Azpeitiko Oargi dantza taldeko kideek nolako zailtasunak zituzten euren entseguak egin ahal izateko irakurtzeak irria sorrarazi dit. Sindikatu Zaharra zuten, nonbait, aurkitu zuten egoitzarik egokiena euren lanetarako, baina bazuten arazo bat: Sindikatu Zaharreko giltzaz arduratzen zena, frankista samarra izan nonbait, eta giltzik eman nahi ez. Izan ere, garai hartan, Oargikoek azaldu moduan, euskal dantzek bazuten aldarrikapen kutsua, eta garaiko erregimeneko zenbait ipurgarbitzailek ezin jasan horrelakorik.

50 urte geroago, orain gutxi, beraz, lagun batek antzeko pasarte bat kontatu zidan: hitzaldi edo bilera bat antolatu nahi Sindikatu Zaharrean, eta giltzaren bila jo eta ke aritu beharra izan zutela Azpeitia osoan, erreguka; udalean baimena eskatu idatziz; bilerako partaideen izen guztiak eman; mintzatu beharra zuten gaiari buruzko xehetasunak adierazi eta abar.

Ez ditut bi egoerak aldarte berean ipini nahi, bistan dena, baina nire adiskideak azaldu zizkidan arrengurak zer pentsatua eman zidaten. Izan ere instituzioetatik, zenbaitetan, jartzen diren traba burokratikoak eta bestelakoak, jasanezinak dira. Badakit, bai, denenak diren egoitzak eta bulegoak errespetuz eta tentuz zaindu behar ditugula, baina horrek ez du izan behar aitzaki, jendearen aktibitate kultural-sozial-politiko-edo kirol arlokoak mugatzeko.

Gogoeta hori gure herrian egitekoa den ditxosozko kultur etxearekin lotu nahiko nuke. Izan ere, badira eredu ezberdinak kultur etxeetan. Batzuk hitzaldi leku huts dira; beste zenbait, ikastaro leku; badira ere liburutegia baino ez direnak... Eta guk, nolako kultur etxea nahi-behar dugu?

Nik argi dut espazio ireki bat behar duela izan. Jende ezberdina bilduko den tokia; bakoitzak bere espresabidea adierazteko tresna lagungarria. Hori da garrantzitzuena: kultur etxeak tresna behar du izan. Kultur dinamizazioan tresna baliagarria izan daiteke, baina horretarako ezaugarri zenbait bete behar ditu:

- Kultur etxearen egitaraua (kanpoko kultur eskaintzak eta herrikoak uztartuko dituen programazioa) talde ezberdinen artean adostu behar da. Kontsentsua ezinbestekoa da aniztasuna bermatzeko.
- Herriko kultur taldeek partaidetza sendoa behar dute kultur etxeko erabaki guneetan. Ezin dira kultur dinamizatzailearen esku utzi erabaki guztiak.
- Kultur etxeak espazio irekia izan nahi badu, eta kultur arloan aritu nahi duen orori irekia egon nahi badu, malgua izan behar du. Ordutegietan malgu; espazioaren banaketan malgu; tresnerietan malgu, eta erabakietan ere malgu. Jende aniztasuna bermatu nahi bada, malgutasuna beharrezkoa da.
- Malgutasunak ez du esan nahi antolakuntzarik eza. Antolaketa beharrezkoa da, baina xede argia izan behar du: kultur etxera hurbiltzen diren guztiek euren tokia izan behar dute.
- Adina ez da muga kultur etxean. Soinua eta arrabotsa maite dutenek, gela bereziak (insonorizatuak) behar dituzte. Antzerkia jorratzeko toki egokiak behar dira. Lasaitze ikastaroak egin nahi dituztenek isiltasuna behar dute. Beraz, antolaketa ezinbestekoa da, baina antolaketa adostua eta malgua, kultura ez baita diziplina zurrun eta hertsia, kontrakoa baizik.
- Kultur etxeko kudeatzaileak, kultur sorkuntza egiten dutenekin aritu behar dute lanean, eta ez izan oztopo edo traba. Kultura ihardokipen dinamikoa nahi badugu, sorkuntzak bultzatu eta lagundu behar dira, baina ez diruz soilik.
- Kultura mota askotarikoa izan daiteke. Espresabide bat denez, ezin zaizkio mugak ipini kulturari.



"Nik argi dut kultur etxeak espazio ireki bat behar duela izan, jende ezberdina bilduko den tokia"

Jose Luis Aizpuru (kazetaria)




# Hurrengo geltokia:

# Paris

Gure erosketa gunea handitzera goaz. 10.000 denda baino gehiago Alde Zaharrera gehituko dira. Azaroaren 23an Parisera bi lagunentzako bidaia zoragarria zozketatuko dugu. Badakizu: jantzidendak, kafetegiak, Senna ibaiertzean paseatu, Rue Saint Honorén erosketak egin... Eskatu zure txartela, gorde ondo eta... bon voyage!







**www.uztarria.com**

**zuk ere eman ezazu albistea, agenda, botoa, iritzia...;**
**hartu parte Azpeitiko atayen, erraza da.**

**UDAL HAUTESKUNDEETAN AZPEITIAN IZANDAKO EMAITZAK**

| ALDERDIA | URTEA | ERROLDA | HAUTESLEAK | HAUTAGAIEN BOTOAK | BOTOAK (HB-EH) | ZINEGOTZIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Herri Batasuna | 1983 | 9.493 | 5.758 | 5.577 | 683 | 2 |
| Herri Batasuna | 1987 | 10.010 | 7.168 | 7.019 | 928 | 2 |
| Herri Batasuna | 1991 | 10.258 | 6.790 | 6.665 | 1.038 | 3 |
| Herri Batasuna | 1995 | 10.763 | 7.342 | 7.191 | 1.459 | 4 |
| Euskal Herritarrok | 1999 | 11.299 | 8.575 | 8.394 | 2.923 | 6 |



Abuztuaren 31n Batasunaren alde egin zen manifestazioa. Batasunaren azkena izan zen. / UZTARRIA

# AZPEITIAN NOLA DAUDE KONTUAK?

Nerea Uranga

Azpeitian, udalean eta herrian eragina izan du Batasunaren aurka hartutako erabakiak

Abuztuaren 26an Espainiako Entzutegiko Baltasar Garzon epaileak hiru urtez Batasunaren egoitza guztiak ixtea eta alderdiaren jardun publiko zein pribatuak etetea erabaki zuen. Ondorioz, Hego Euskal Herriko hiriburuetan Batasunaren egoitzak itxi zituzten Ertzaintzak eta Espainiako Poliziak, baita herri batzuetakoak ere. Batasuna legez kanpo uzteko erabakiak Azpeitian ere eragina izan du, bai udaleko jardunean eta baita ere kalera begirako jardunean. Udalean bigarren indarra da Batasuna; sei zinegotzi ditu, zazpi EAJk eta lau EAk.

● **UDAL TALDEA.** Espainiako Auzitegi Konstituzionalak esan duenez, alderdi bat eta alderdiaren zerrendetan hautatuta osatutako udal taldeak banatu egin behar-ko dira. Azpeitiko Udalean talde bezala jarraitzen dute, baina Sozialista Abertzaleak udal talde bezala, Batasunak talde bezala ezin baitu ez proposamen ez ekimenik aurrera eraman udaletxean.

● **KARGUAK BANAKOAK.** Batasunaren inguruan Garzonek hartutako erabakiak ez du eraginik zinegotzien jardunean eta eskubideetan, kargua herritarren botoei esker lortutakoa baita. Dena den, Batasunaren ordezkari bezala ezin dute ezer egin zinegotziek. Udal taldea osatzea euren eskubidea bada ere, hori urratu nahi da. Uneotan Sozialista Abertzaleak udal talde bezala ari dira jardunean udaletxean.

● **UDALEKO ERAKUNDEETAN.** Udalak dituen gainerako erakundeetan, patronatoetan, elkarte anonimoetan edota bestelakoetan, ezin dute ordezkaritzarik izan Batasunekoek, ez zuzenean ezta zeharka ere. Azpeitiko Euskara Patronatoa da adibide bat. Gaur egun, bertan badu ordezkaritzarik Azpeitiko Sozialista Abertzaleak.

● **UDALETXEAN BULEGOA.** Garzonek emandako aginduaren arabera, Batasunak udaletxean bulego propiorik ezin du izan. Udaleko hiru alderdiek bulego bana dute, tartean Sozialista Abertzaleek.

● **KALEAN, HERRIAN.** Batasuneko ordezkari bezala ezingo da ez hitzaldi, ez manifestazio, ez prentsaurrekorik deitu. Azkena, abuztuaren 31ko manifestazioa da. ●

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak, edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

Euskal Herria,34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Larrialdiak:
943 15 16 40
Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Olamendi
Bitxi Denda
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

udal erabakiyek

## Urrestillan etxebizitzak egiteko baimena eman du Foru Aldundiak

Urrestillan Bizker aurreko eta aparkaleku publikoaren ondoko lursaila lehen industriarako zen, baina orain etxebizitzak eraikitzeko izango da. Udalak lursail horren kalifikazio aldaketa eskatu zuen Foru Aldundian eta honek onartu egin du. Bizker aurreko lursailean gehienez 27 etxebizitza eraikitzeko baimena eman dio Udalari Foru Aldundiak. Eraikinak 'L' itxura izango du eta hiru solairu, sotoa, behe solairua eta teilatu azpia izango ditu.

Lursailaren kalifikazio aldaketa behin betiko onartu badu ere Aldundiak, etxebizitzak eraikitzeko orduan, halaber, hiru baldintza betetzeko agindua eman du: eraikiko diren etxebizitzetarako garajeko sarrera ondoko aparkaleku publikotik izan beharko da. Bestetik, hondakin uren isurketari dagokion Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritzaren txostenak jasotzen dituen baldintzak bete beharko dira eta, azkenik, Uholdeen Azterlan Hidraulikoaren ondorioz beharrezkoa izango balitz lursail horretarako planak ezarritako kota aldatzea beharrezkoa izango da Xehetasun Azterlana tramitatzea eta onartzea.

# Jill Aldape

gurien...

Boiseko Oinkari Dantza Taldeko kidea

## «Azpeitiaren berri banuen, Boisen azpeitiar bat bizi baita»

**Nerea Aranburu** / Irailaren 21ean, euskal etxeetatik osatutako dantzari taldeak bildu ziren Itsasik antolatutako jaialdian parte hartzeko. Uztarriak, Boise-ko (Amerikétako Estatu Batuak) Oinkari Dantzari Taldeko kide batekin hitz egin zuen.

**• Nolatan etorri zarete Azpeitiko jaialdira?**
Euskal etxe guztietara galdetegi bat bidali ziguten Eusko Jaurlaritzatik. Galderak erantzun eta gero, lehiaketa bat egin zuten denen artean eta bukaeran, Euskal etxe desberdinetako 40 dantzariko taldea osatu zen. Taldea, AEB, Mexiko, Venezuela, Txile, Uruguai eta Argentinakoak osatzen dugu.

**• Noiztik zaudete Euskal Herrian?**
Hogei egunetarako etorri gara. Jaialdi batzuetan izan gara, Zarautzen, Basaurin... Azpeitikoarekin amaitu dugu bidaia.

**• Nolako dantza emanaldia eskaini duzue?**
Bi dantza egin ditugu: Lapurdiko polka eta fandangoa. Bidaia honetan ikasitakoak dira.

**• Denbora asko al daramazu euskal dantzak ikasten?**
Orain dela lau urte hasi nintzen. Beti gustatu izan zaizkit. Etxekoak euskal jatorrikoak dira, eta haien bitartez ezagutzen ditut dantzak.

**• Lehen aldia al da Azpeitira etorri zarela?**
Azpeitiaren berri banuen, Boise-n azpeitiar bat bizi baita: Alberto Bereziartua. Ez da lehen aldia etorri naizela, orain urte batzuk egona naiz. •




"Azpeitiko jaialdiarekin amaitu dugu Euskal Herrirako gure bidaia"

# Orkatzek ere uko egingo dio fiskalaren eskariei

**Idoia Mendizabal** / Irailaren 23an, Euskal Herriko 35 kultur elkarte eta *herriko tabernetako* ordezkariak, Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen aurrean izan ziren, hauen aurka uztailean hasitako ekinbide judizialak medio. Azpeitiko Orkatz Kultur Elkarteko ordezkaririk ez zen izan Madrilen, hauek han izan beharko zutela espero bazuten ere, administrazioaren akats bat dela medio zitaziorik ez zuten jaso Garzonen aurrean azaltzeko. Baina, uste dute laster jasoko dutela zitazioa. Dena den, Orkatzen egoera Euskal Herriko beste kultur elkarte eta *herriko tabernen* berdina da.

**'KONPARTITUA'.** Madrilen, Espainiako Entzutegiko Enrique Molina fiskalak, Garzon epaileari, kultur elkarte eta *herriko tabernen* ordezkariei eta Jone Goirizelaia abokatuari, elkarteen administrazio judiziala "konpartitua" izatea proposatu zien, tabernak itxi gabe. Baina, elkarteetan dauden bestelako bulego eta lan lekuak ixteko eskatu zuen. Administrazio judiziala "konpartitua" izatearen ondorioz, Espainiako Ogasuneko ordezkari batekin kultur elkarteek aukeratutako ordezkari batek administrazio judiziala egin beharko luke. Hau onartuko balitz, Orkatzek ezingo luke ez dirurik ez kontu berririk ireki administratzaile judizialak jakin gabe. Kultur elkarteen eta herriko tabernen ordezkariek Espainiako fiskalak eskatutako neurriak baztertu egin dituzte.

Baltasar Garzon Espainiako epailearen aginduz, uztailaren 12tik, 75 herriko taberna behin-behinean enbargatuta daude eta 109 kontu korronte blokeatuta daude, "kale borrokak eragindako kalteak ordaindu ahal izateko". Enbargoak direla-eta elkarte batzuek azaldu dute "egoera larrian" daudela.

Orain, Espainiako Justiziaren arabera, erabakia Garzonek hartu beharko du. Egoera honen aurrean Orkatz Kultur Elkarteak herriko gi-zarte eragileekin biltzeko asmoa du. •

## Urbanizagarritik industria lurrera

Lasaoko gasolindegiaren ondoko lur eremua urbanizagarri izatetik industria lur izatera pasatzeko erabakia hartu zen irailaren 18ko udalbatzan EAJ eta EAko zinegotzien aldeko botoekin. Sozialista Abertzaleak ezezkoa eman zuen.



Lasao aldeko lursaila. / UZTARRIA

## Javier Arizabaloren kartela izango da Antzerki Topaketetako irudia

Javier Arizabalo Garcia irundarrak aurkeztu duen kartela aukeratu da XX. Euskal Antzerki Topaketetako irudi izateko. Epaimahaiaren iritzia eta ikuslegoak emandako puntuaketa kontuan hartuta aukeratu da kartela, eta 901 euroko saria jasoko du. Aurtengo Antzerki Topaketetako kartel lehiaketara, orotara 32 lan aurkeztu dira. Eta Betharrametan uztailaren erdialdea arte izan ziren erakusgai kartel guztiak.

pertsonajie



## Jose Luis Frantzesena

Jose Luis Frantzesena musikari eta konposagile azpeitiarrak BBK eta Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak antolatzen duen VI. abesbatzentzako konposaketa lanen lehiaketan bigarren saria jaso du *Anbotoko Mari* konposaketa lanarekin, uztarria.com-ek aurreratu zuen bezala. Hitzak ere berak idatzi ditu, eta horretarako Joxe Miel Barandiaranen testu eta liburuetara jo du. Oraindik eguna eta lekua zehazteko dituzte antolatzaileek, baina aurreratu dutenez, sari banaketa martxoan egingo da. Ez da aurreneko aldia lehiaketa horretan saridun gertatu dena, hiru urtetan jaso baitu lehiaketako lehen saria: 1997, 1998 eta 2000. urteetan. •

## zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



**ERANTZUTEKO EPEA:** Urriak 18 (ostirala)

**HELBIDEA:** Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerra; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

**AKATSA ADIERAZI** (idatziz edo boligrafoz):

**IZEN-ABIZENAK:**

**TELEFONO ZENBAKIA:**

**IRABAZLEARENTZAT SARIA:** Astigarraga oinetako dendako erosketa txartela.

### AURREKO ARGAZKIYE...



### ...ETA SOLUZIYUE



### IRABAZLIE: Nati Egiguren Urkizu



Nati Egiguren izan da 32. garailea. Egaña jantzidendak emandako erosketa txartela irabazi du. Argazkian, Nati Egiguren — ezkerrean — eta Egaña jantzidendako jabea ageri dira.

## iraileko hiru irudiyek



Ion Aranburu



Iñaki Uranga

**EGUNA ETA BIHARAMUNA.** Irailaren 15ean Urrakiko XX. Igoera izan zen. 70 auto gidarik hartu zuten parte; Aitor Zabaletak irabazi zuen. Jendetza bildu zen. Antolatzaileek zaborra jasotzeko eskatzen dute, baina jasotzeko lana antolatzaileek hartu behar!

# Triku Festa, musika festa, giro paregabea, lehena izan da baina ez azkena

**Nerea Uranga** / Iraileko hirugarren asteburuan izan zen lehen Triku Festa. Hainbat kontzertu jaso dituen jaialdia. Urrestillako eta Zubi Zarreko lokaletako kideek antolatu zuten. Iaz ere antzeko ekitaldia antolatu zuten, "iazko esperientzia bizkarrean eta egindako lanak emandako fruitua baliogarria izan baita".

Iaz bezalatsu, tabernetan kontzertuak izan dira, baina San Agustinpe indartu nahi izan dute. Aurten izena ere eman diote musika ekitaldi



Triku Festan Auzoko Prexkurie musika taldeak jendaurrean lehen kontzertua

UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265
Fax.: 943 85 28 67
E - mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E - mail: azpeitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)




**NUARBE KOADROAN.** Nuarbe bada zerbait donostiarrentzat. Antxietan egon den erakusketaren egile Aleman Amondarainek —Donostian bizi da— Nuarbe margotu baitu koadro batean.

> “Pilotari bertso gehien jarri dizkion bertsolaria, dudarik gabe, Basarri izan da”
>
> **Xabier Euzkitze**
> (telebistako aurkezlea)

> “Lau denboraldi daramatzat Realean, baina oraindik gaztea naiz eta uste dut asko hobetu behar dudala”
>
> **Mikel Aranburu**
> (Realeko futbolaria)


Mikel Aranburu.

> “640 kilotan Nuarbek aukera handiak ditu sokatirako XII. Munduko Txapelketan”
>
> **Andres Osa**
> (Euskadi Irratiko esataria)


...uen. Korrale taberman izan zen kontzertua irailaren 19an. / UZTARRIA

multzoari, Triku Festa bezala bataiatu baitute. “Izenak ez du misteriorik, izen bat eman nahi eta proposamen gutxiren arteko onena aukeratu genuen. Hurrengo urteetan ere jarraipena izango duelakoan, eta ekitaldia Triku Festa bezala ezagutu dadin”. Aldaketa nabarmenena kanpoko taldeen partaidetza izan da, “honek herriko taldeetako kideei jendea ezagutu, kontaktuak egin eta beste lekuetako ateak irekitzeko aukerak sortzen baitizkio”.

Antolatzaileentzat “merezi” izan du festa antolatzea, beren lanak hartu dituzten arren.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa
zuri esker

kitzika joyería
Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea
Jose Artetxe, 13 Tel. 943.15.76.13 AZPEITIA

MIKELATS AEK EUSKALTEGIA
- Euskalduntze maila guztiak
- EGA
- Ikasleari egokitutako egun eta ordutegia
- Udalak diruz lagunduta

Urbitarte 2-1ean 943 - 15 1089



# SAIHESBIDEAZ ZER?

Udalean, Foru Aldundiak herriko balizko saihesbideaz egindako aukeren inguruan ez da bozkatu. Alderdi bakoitzak bere proposamena egin du udaletxean

Nerea Urañga

## EAJ: Xoxote azpiko aukera

Azpeitiko Udaleko EAJ-PNVko arduradunek Udaleko Bulego Teknikoak egindako txostenaren alde egin du. Alkateak, Udaleko Bulego Teknikoari Azpeitiko balizko saihesbidearen aukerak eta garraioaren inguruan azterketa bat egiteko eskatu zion. Txostenak dio iparraldeko aukera dela egokiena; hau da, Izarraizpekoa.

**• AURREKO AZTERKETAK.** Bulego Teknikoak egindako azterketan, aurrez egindako azterketak kontuan hartu dira; hala nola, 1993ko urtarrilean Azpeitiko Udalak GI-631 errepidean saihesbide bat egiteko aukera (A eta B aukerak aztertzen ditu). Eta 1998an udalak Azpeitiko garraioaren inguruan egindakoa. Ondorioz, azken azterketak iparraldekoaren (Izarraizpekoaren) alde egiten du.

**• GARRAIOA BANATU.** Iparraldeko aukera, pasoko eta herriko garraioa "bana-tzen" dituelako da "egokiena". Eta trafikoaren "mugikortasuna" eragiten duelako.

**• HERRIKO PLANEAMENDUA.** Txostenaren arabera, herriko planeamendua "gehien" errespetatzen duena iparraldeko aukera da; besteek planeamendua "hausten" dute.

**• KOSTU TXIKIAGOA.** Ingurumenean eta geologikoki, iparraldekoak eragin txikiagoa duela esaten da; eta ekonomikoki, aztertutako aukeren artean kostu txikiena duela.


Loiola etorbidea. / UZTARRIA

## EA: Landeta aldeko aukera

Udaleko Eusko Alkartasuneko ordezkariek bat egin dute Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako Azpeitiko balizko saihesbidearen bi azterketekin (iparraldekoa eta hegoaldekoa) eta bi azterketetan agertutako ondorioekin. Alegia, hegoaldeko aukera dela egokiena, Landeta aldekoa.

**• HEGOALDEKOA EGOKIENA.** Gipuzkoako Foru Aldundiak Izarraizpeko aukera (iparraldekoa) eta Landeta aldekoa (hegoaldekoa) aurkeztu zituen ekainean Azpeitian. Azterketa horien aurkezpenean, hegoaldeko aukera zela egokiena azaldu zuen. Aurrez, udalak hegoaldeko beste aukera baten azterketa ere eginda dauka; Zapatari alderaino (Errezilerako bidegurutzea) heltzen dena da.

**• HERRITARREN IRITZIA.** Azpeitiarrek Gipuzkoako Foru Aldundiak saihesbiderako aurkeztu dituen bi azterketen inguruan herritarrek iritzia emateko aukera izan dutela azpimarratu dute EAkoek. Eta dagoeneko herritarren iritziak jasota daudela ere adierazi dute.

**• AUTOEN MUGIKORTASUNA.** Udaleko Eusko Alkartasuneko zinegotzien iritziz, etorkizunean egin daitekeen saihesbide berriak "herriko eta gaur eguneko saihesbidean gertatzen ari den auto pilaketari erantzuna eman beharko lioke. autoen mugikortasuna ahalbidetuz".

## Sozialista Abertzaleak: garraioaren azterketa osoa

Azpeitiko Sozialista Abertzaleak taldearen ustez, herriko trafiko arazoa "azken hamarkadetan autoaren erabilera soilik" bultzatu izanaren ondorioa da. "Gainontzeko garraio motak baztertuak izan diren bezala, autoaren erabilera ugarituz joan da, egungo errepideak betez". Bestetik, herrian gertatzen diren auto iladak "modu sinple" batean zuzendu daitezkeela dio. Horrenbestez, garraioa zuzentzeko hainbat proposamen egin ditu.

**• OSOTASUNEAN AZTERTU.** Garraioaren arazoak osotasunean aztertzea eta udalean eta Gipuzkoako Foru Aldundian dauden "auto saltzaileen eta errepide eraikitzaileen interesen gainetik, herritarren interesak kontuan hartzea beharrezkoa" dela dio.

**• GARRAIO PUBLIKOA.** Garraio publikoa sustatzea lehenetsi du, industrigune eta herriko auzoetara autobusak jarriz. Oinezkoentzako espaloiak eta bidegorriak egitea ere beharrezkoa ikusten dute Sozialista Abertzaleek.

**• ERROTONDAK.** Gaur eguneko saihesbidean zenbait aldaketa egitea: behin-behineko errotondak bukatuz —Azauntzakoa, esaterako— eta berriak eraikiz Sanjuandegin eta Garmendi gainean.

**• LURREN ERRESERBA.** Saihesbide berri baterako lurren erreserba egitea proposatu dute eta saihesbiderako proiektu bakar bat zehaztea eskatu dute. •




Mari, Ama Lurra, Basajauna,
Olentzero, Kixmi, Ilazki...



guztiak aurkeztuko dizkizu
**EGUNKARIAk DOAN**.

Egunero, asteartetik igandera, Euskal Mitologiako pertsonaien irudiz eta istorioez osatutako bilduma eskainiko dizugu.

Urriaren 6an, igandean, **EGUNKARIA**rekin karpeta eta Ama Lurraren lamina **DOAN**.

Egunkaria

# BERTAKO HARAGIA... ...GURE HARATEGIETAN

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 82
AZKOITIA
Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA

PATXO
EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenal
San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98

HARATEGI
MATXIN
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA

Harategia Odriozola
Haretegi Espezializatua
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015

KALITATEKO
EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO

JB San Sebastián
HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 9
AZPEITIA

ZABALA HARATEGIA
KALITATEZKO HARAGIA
BUSTINZURIKO ERREBALA
TFONOA.: 943 811671



EUSKO LABEL
KALITATEA

# Azpeitiko bi bertsolarik bi lehiaketatan bigarren sariak jaso dituzte: Urko Egañak eta Imanol Lazkanok. Hona bien bertso sortak

## Lazkao Txiki Lehiaketako 2. saria


Urko Egaña

• **LEHIAKETA:** Ordiziako Lazkao Txiki Bertso-paper lehiaketa • **SARIA:** Bigarren saria, irailaren 15ean jaso zuen • **DOINUA:** Oh gu hemen • **NEURRIA:** Berezia

### Gaia
### MENDIA

Ohera
joan naiz lehenago,
kolpera
ametsen esklabo,
ostera,
esnatuta nago
ametsengatik.

Begiak
lausotu ezean,
zauriak
dauzkat bihotzean,
mendiak
jarri nau trantzean
loa amestuz.

Mendiak
irentsi zituen
erdiak
lagunak nituen;
egiak
izoztu ninduen
amets gazitan.

Izoztu
gaitu berri hotzak
ta ostu
dizkigu bihotzak.
Zein poztu
nahi du heriotzak
ametsak hilez?

Mila test
ta proba hasteko,
Everest
hankape uzteko,
beti prest
hesiak hausteko
ametsak sortuz.

Motxila
amets eta neke
botila
oxigeno bete...
Hats pila
agortu daiteke
hots, ametsak ez!

Gailurra
guztion egarri,
makurra
gertatzen da sarri,
elurra,
bihurtzen da harri
ametsak hautsiz.

Goraka
gorako bidean,
beheraka
gorako idean,
bueltaka
zerutik aidean
ametsen bila.

Zerura
heltzeko modua
modura
ez dago zerua
galdu da
ametsen gudua
ametsak galduz.

Izarraitz
ta Aralar hurbil
zenbat gaitz
kabi txikitan bil,
gero nahiz
K2 handian hil
ametsak amets...

Gassenbrum
K2 nahiz Pumori,
euskaldun
askoren hilobi,
hain lagun
ez den lagun hori
euskal ametsa.

Andeetan
edo Himalayan
denetan
gora heldu nahian,
han bertan
ta beren paisaian
amesti dabiltz.

Zer otu
Euskal Herri hontan
lerrotu
zaizkigun malkotan?
Lehortu
ahal diren asmotan
segi amesten.

Pentsatu!!!
Beno eta noiz ez!!!
Sendatu
naiteke oroitzez,
esnatu
nahi dut bihar goizez
ametsen gose.

## Basarri Lehiaketa 2. saria


Imanol Lazkano

• **LEHIAKETA:** Zarauzko Basarri Bertso-paper lehiaketa • **SARIA:** Bigarren saria, irailaren 7an jaso zuen • **DOINUA:** Esnezalearena • **NEURRIA:** Hamarreko txikia

### Gaia
### BAPO ZEBILTZAK

Gure gorputza lotan
dagoen orduan
burua jolasten da
nahi duen moduan
amets bat berezia
egin dut lenguan
batere uste gabe
zeruan nenguan
kontatuko dizuet
zer ikusi nuan.

Sartu eta hastean
lagunen galdean
Baxerri han zegoen
betiko moldean
gizon serioena
bera zen taldean
eserita guztizko
pormalidadean
aita eternuaren
eskubi aldean.

Uztapide han ere
hemengo klasean
gosalduta purua
piztu zun goizean
kartak eskuetan da
tantoen ehizean
keinu pikaroren bat
noizean-noizean
San Pedro zarrarekin
ari zen musean.

Lazkao Txiki berriz
lehen bezain arraio
ezkututik zelatan
egona natzaio
deneri adarra joz
dabil nahiko iaio
Jesus beregandikan
ez zelako jaio
San Joseri ilea
hartzen ari zaio.

Zer ote zen Balentin
Enbeitan papera
arrasto garbirikan
ez nuen atera
bat ausartu zitzaidan
isilka esatera
aita Urretxindorra
ta biak batera
joan ote ziraden
mitinen batera.

Joakin Mitxelena
hura azeria
Satan berari sartu
bai zion ziria
hari zaku ikatz bat
ostuz alegia
nonbaiten bildu zuen
arrai ta haragia
debalde atera zun
bere afaria.

Fernando Aire guztiz
ilun da pentsakor
zerura joan da ere
Xalbador xalbador
maitasun denak hemen
ez zituen agor
Amabirjinarekin
maitemindu da hor
Espiritu Santuaz
jarri da jeloskor.

Sartu nintzen ezkero
zeruko atean
algara entzuten zen
tartean-tartean
zer zen ikusi asmoz
bertara joatean
Mattin han azaldu zen
irrifar batean
kaniketan zebilen
aingeru artean.

Santa Genobeba ere
tartean daukate
bertsotarako gaia
izatez aparte
bertso saltsa guzitan
hartu ohi du parte
etzen lasai munduko
berri jakin arte
galdetu ez zidan ba
Zer moduz Lasarte?

Len ez nuen sinisten
zeruko bizitzan
baina bertaratzean
liluratu nintzan
ikusirikan zeinen
ederki dabiltzan
zerura joateko
halako baldintzan
presik ez dago baina
beldurrik ez izan.

## PAKO ARISTIREN ENBIDOA



# KAITO TELEBISTA

Kaito Telebistak jateko gogoa kentzen dit. Badakit hori, denak dieta egiten dabiltzan garai hauetan, ez dela gauza txarra, baina arraroa da, niri telebistak, normalean, tristura ematen baitit. Tristura eta aspermena. Ez zait gustatzen, eta esfortzuak egin behar izaten ditut ikusten ari naizenari grazia aurkitzeko. Baina ez diot aurkitzen, eta tristura ematen dit, milaka pertsonek hain modu naturalean irensten dutena ezin dudalako neureganatu. Zeozer galduko dut horrekin, dudarik gabe.

Baina Kaito Telebistak gosea kentzen dit. Bere irudi eta kolore kaskar horietan, modulaziorik gabeko ahots metaliko batez iragarririk ageri diren jatetxeetara joateko gogo guztiak kentzen ditu. Bokateria askotan ageri diren argazki zurituen antzeko eragina egiten du Kaitoko propagandak. Alabaina, ez dut Kaito Telebista kritikatu nahi, zein bitxia den agertu baizik.

Aspaldi ezkondu ziren nire lagunak, urtean behin edo gutxiagotan ikusten ditudan horiek, non eta zertan ibiltzen diren deskubritzeko balio izan dit niri Kaito Telebistak. Hor ikusten ditut euren seme-alabekin batera eskolako jaietan, antzerkietan, Izarraitz pilotalekuko jaialdietan, jai ezberdinetan, goizean goiz jaikita, gu lo harrapatzen gaituzten goizeko ekitaldiei begira. Haien eta nire artean dagoeneko inola ere estaltzerik ez dagoen leize sakon bat dagoela konturatu naiz. Alegia, bizitzan ezin dela atzera egin, ezin hartutako bidetik aldendu.

Kaito ikustea, askotan, argazki zaharrak begiratzea bezala da, duela ez dakit zenbat urteko gauzak botatzen hasten denean. Halako zein gazte dagoen ikusten dugu, baina batez ere han ageri direnetatik zenbat dauden hilda. Puntu nekrologiko bat badauka, baina bestetik lasaigarria da, batez ere zaharrentzat, pantailan ageri den hildako piloa ikusita esaten batute: "Uf, nik orain arte ihes egin diot behintzat heriotzari, bizi nadin, aprobetxa dezadan indar apur hauek ematen didaten aukera".

Inongo zentzurik eta probetxurik aurkitzen ez diodana zaharren eskurtsioen atzetik burutzen dituen erreportaiak dira; horrek bai kentzen duela bizitzeko gogoa! Zaharrak autobusera igotzen, autobusetik jaisten ez dakit non, gerriak gogor, oinak makal, irribarre gutxi aurpegietan. Eta jasangaitzena da gero, bazkaltzen ari direlarik, bananbanan mahaia pasatuz egiten duen *barridoa*. Jatea bere intimitatea baduen zeregina da, eta paella tenedore muturrean duela inor grabatzea ez zait oso etikoa iruditzen. Gainera, mahaietan ura ikusten da ugari, edota ardo merkea. Koparik daukanak ezkutatu edo urrundu bezala egin ohi du bere kopa, bekatari gaiztoa halakoa.

Urteak pasatu ahala, Kaito Telebista gauza antropologikoa bilakatuko da, baina egunero-egunero ikusteko zer eskaini gutxi dauka, aktualitate gutxi. Hitzaldiak edo kultur ekitaldiak botatzen dituenean ere, oso errealizazio pobrearekin egin ohi du, kamera triste batekin, batere mugitu gabe eta hain soinu txarrarekin! Telekomunikabideen aurrerapen guztien ukamena bihurtzen da holakoetan Kaito Telebista.

Hala ere, gurea da, gurea bihurtu da. Gureagoa sentitzen nuen nik pornoak botatzen zituen ostiral haietan, baina tira, hori ere kendu zuten. Libidorik gabeko telebista bat egitea erabaki zuen norbaitek, eta guk zer esango dugu ba!



"Telebistan ikusi haut!", esaten didanean norbaitek, ni pentsatzen jartzen naiz non atera naizen, Antena Tresen, Telecincon. "Ez, Kaiton" esaten didate gero. A, ba, hor edozein ateratzen da, eta gutxiesten dugu. Ba gaizki egina. Kaiton ateratzen ez garenean izango dira kontuak. Hilda gauden seinale!

**HILEKO GALDERA.** 13 urte daramatza kartzelan Paterra herriko semeak. Horren aurrean, zein da galdera?

uztarria.com

# Uztarriaren webgunean bisitak ugaritu egin dira azkeneko asteetan


Iraílek 25, ASTEAZKENA

uztarria.com
azpeitiko ataye

Iker > hacker
Andoni >

AGENDA | ALBISTEAK | EZTABAIDAK | INKESTAK | POSTA ZERRE

ON:-> Uztarria.com

Agenda
Albisteak
Eztabaidak
Herri aldizkaria
Inkestak
Laguntza
Posta zerrenda

HERRIA: Udaletxe aurrean ordu laurdenez kontzer atentatua salatzeko.

Kontzentrazioa izan da atz salatzeko

uztarria.com - Gaur, 2002/09/25 13:10 | Argazkia d 2002/09/25 17:27)

EAJ eta EAk deituta, kontzentrazio isila egin d Carlos Beiro Montes Guardi Zibilaren aurka egi

EUSKARA: Baite Euskara Elkarteak Egunkariako zozketatu du.

Mikel Arrieta, Mikel Abaunz Godoy-k Egunkariako lau h harpidetza irabazi dute


**Uztarriaren datuak**

**Argitaratzailea:** Uztarria Kultur Koordinadora
**Egoitza:** Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerra (Azpeitia). Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
**Posta elektronikoa:** uztarria@topagunea.com

Web orria:
www.uztarria.com

**Posta kutxa:** 227, Azpeitia
**Inprimategia:** Gertu
**Tirada:** 1.800 ale
**Lege gordailua:** SS-860/2000

**aldizkari honen laguntzaileak**

AZPEITIKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila


Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

● **EGUNEROKO BISITAK.** www.uztarria.com-ek egunero, batez beste, 850 orri inguru erakusten ditu. Astegunetan, eskatutako orri kopurua dezente igotzen da; asteburuetan, aldiz, sarrerak jaitsi egiten dira. Gailurra uztailaren 8an harrapatu zuen webguneak, 1.200 orritik gora erakutsi baitzizen. Abuztuan bisita kopurua nabarmen jaitsi zen (oporrengatik webgunean ez zen albisterik gehitu), baina irailarekin batera opor aurreko kopuruetara igo da dagoeneko.

● **ORRIRIK BISITATUENAK.** Azken orduko albisteak izaten dira, dudarik gabe, jendeak gehien estimatzen dituenak. Badira ia 300 aldiz irakurri diren albisteak ere. Horiez gain, eztabaidek ere estimazio handia dute.

● **DIRU LAGUNTZAK.** Foru Aldundiak Uztarriaren webgunea diruz lagunduko du: aurten lau mila euro emango dizkio. Azpeitiko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren erantzunik ez da jaso oraindik, aurtengo diru laguntza eskatuta badago ere.

albiste txikiyek



## Pourra 2002ko sariak banatu ziren

Uztailaren 30ean banatu ziren Uztarria Pourra 2002ko sariak. Lehen saria (498 euro) Iñaki Egibar azkoitiarrak irabazi zuen —argazkian, eskuinekoa— eta bigarren (245 euro) eta hirugarren (124,5 euro) sariak Tomas Ugaldek jaso zituen.

## Hirugarren liburua

Uztarria Kultur Koordinadorak atera du hirugarren liburuxka biografikoa (irailaren 28an aurkeztu zuen). Imanol Eliasi buruzkoa da, eta Mailo Oiarzabal kazetariak idatzi du. Dagoeneko salgai dago herrian (ikusi 34. eta 35. orrialdeak), zazpi euroren trukean. Uztarriako bazkideek etxean jaso dute Imanol Eliasi buruzko liburua.


577 bazkide gara jada

# EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAn

**Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan** (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

**IZEN-ABIZENAK:** ______

**HELBIDEA:** ______

**HERRIA:** ______ **KODE POSTALA:** ______

**TELEFONOA(K):** ______ **POSTA ELEKTRONIKOA:** ______

**KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA** (20 digitoak): ______

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerra • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

# Pako Aristi

idazlea



## Euskal Herri osoan da ezaguna urrestildarra. Idazlea da, baina kazetaria ere bai; eta gidoilaria; eta musikaria. 27 liburu argitaratu ditu, eta beste bat bidean dauka

**Iban Arregi**

Uztarriaren egoitzan bertan egin dugu hitzordua Pakorekin. Ezaguna du, lehendik ere, aldizkariaren txokoa. Eta han dago zain, gu geu agertzerako, fin-fin, artean "erdi lo". Azpeitian hasi eta Urrestillan, bere herrian, eman diogu bukaera elkarrizketari.

**• Pako Aristi Urtuzaga: idazlea, kazetaria, gidoilaria, musikaria... Horiek denak egiten al dituzu?**

Bai, horiek denak, eta nik esan ohi dut ezer ez dudala ondo egiten. Hiruzpalau instrumentu jotzen ditut; baina ondo, batere ez. Beti eduki dut espresiorako joera bat, buru gobernaezin samarra izan dut beti.

**• Zerbait lortu duzu, behintzat: idaztearen inguruan antolatzea zure bizitza, hortik bizitzea.**

Bai, eta apustu kontziente bat izan da hori; askotan lanbide finko samar batzuk utzi izan ditut, dirua irabazteko aukera batzuk utzi izan ditut.

**• Gogorra al da horrela bizitzea?**

Neurri batean da gogorra, hilaren bukaeran soldata bat izateko segurtasuna galtzen duzulako. Eta gaur egungo gizartea era batera dago antolatuta; alegia, dena diru-sarreraren bidez zer egin dezakezun jakiteko moduan. Pisu bat erosi, oporretara joango al naiz... Diru bat badaukazu, diru horren arabera antolatzen duzu zure bizitza. Eta segurtasun hori eduki gabe, bizitza beste era batera antolatu behar duzu.

**• Horrek bultzatuta, enkarguzko idazlanak ere egin behar orduan?**

## "Azpeitia oso herri tradizio




# nalista eta atzerakoia da” ▸▸

Bai, tarteka bai. Baina enkarguzko lanak gustukoak ez badituzu, proposatu dizun pertsona horrekin ez baduzu sinpatia minimorik, orduan ez, orduan ez dut onartzen. Norbaitek hotzean telefonoz deitzen badit ez dakit zer lan egiteko, eta motibaziorik ez badut, orduan ez dut egiten.

**● Narratiba idatzi duzu, poesia ere bai, kazetari lanak ere asko. Ze terrenotan zabiltza gustuen?**
Nire maitasunik handiena kazetalgintza izan da, ume-umetatik. 9-10 urte nituenetik irakurtzen nuen nik egunkaria, eta egunkari zatiak gorde. Egunero irakurtzen den egunkari horri egundoko maitasuna izan diot beti. Literatura beranduago etorri zitzaidan. Lagun talde batekin bildu eta horrela hasi nintzen.

**● Eta horrek, nolabait, ondorio bat behintzat izan du: garai batean elkarrizketatzaile zinen eta orain elkarrizketatu.**
Nire bizitzaren eboluzio bat hori izan da igual. Urteetan elkarrizketa asko egin izan ditut, astero. Kaleko lana asko egin izan dut. Gero erretiratu egin nintzen kaleko lanetik; orain iritziak ematen ditut prentsan.

**● Gazte samarra izanagatik, izugarri idatzi duzu. Zure bibliografia begiratuta, 27 liburu edo lan ageri dira. Kontxu Odriozolaren biografia ere bidean da...**
Bai, asko idatzi izan dut. Jende askok uste du nik ez dudala lan askorik egiten; baina nik, neure lanean, lan asko egin izan dut. Egia da idazteko erraztasuna ere beti izan dudala, eta ez naiz folio baten aurrean ordu asko pasatzen dituzten horietakoa. Pentsa: bat edo bi onak egiteko 27 idatzi behar izan ditut... Dena den, idaztera dedikatu izan den jendeak beti idatzi izan ditu liburu asko.

**● Lan asko egin izan duzu, beraz. Baina metodikoa al zara eguneroko lanean?**
Ez, ez naiz batere metodikoa. Diziplinatua bai. Egun baterako entregatu behar badut lan bat, ia beti garaiz entregatu izan dut. Baina metodikoa ez: zer gorputzaldi daukadan, zer gogo daukadan... Batzuetan, goizetan, idatzi beharrean, pare bat kafe hartzen ditut, jendearekin hizketan egon eta arratsalderako utziko dut lana..., edo iluntzerako... Horrela funtzionatu izan dut beti. Norberak bilatu behar du funtzionatzeko erarik onena. Metodikoa banintz, nire idazkera aldatu egingo litzateke.



**● Liburu horien denen artean bakarren bat ona atera zitzaizula esan duzu, eta Espainiako Literatur Akademiaren Kritika Saria ere jaso zuen *Urregilearen Orduak* liburuak 1999an. Garrantzia izan al zuen zuretzat?**
Sari hori bera ez da oso garrantzitsua. Euskal Herrian ez dauka eragin handiegirik, Madrilek bultzatutako sari bat delako. Eta dirurik ere ez du ematen. Nolabait esateko, sari honorifiko bat da.

**● Norberarentzako ohorea, orduan?**
Bai, zeuri ematen dizu halako harrotasun bat. Urte hartan nobela onak argitaratu ziren: Anjel Lertxundik, Arantxa Urretabizkaiak, Koldo Izagirrek, Andoni Egañak... Jende horren artean errekonozimentua niri egitea handia da, baina gauza erabat pertsonala eta intimoa izan zen.

**● Gaur egun komunikabideetan ere idazten duzu (*Egunkaria, Gara, Uztarria*). Horrek aktualitate politikoa segitzera behartzen zaitu. Ez da ba giro azkenaldian...**
Oso egoera zaila ari gara bizitzen. Baina egia dena da egoera zailak asko bizi izan ditugula hemen. Ez da oraingo kontua bakarrik. Duela gutxi EAJ inguruko batek esan zidan: 'Abertzaleok bat egin behar dugu...'. Baina, Lizarra-Garaziko esperientzia alde batera utzita, noiz egin dute ba bat abertzaleek azken 27 urte hauetan?

**● Zuk behintzat, badaukazu 'abildade' bat: ezker-eskuin jotzen duzu. Oraintxe Otegiri, hurrena Arzalluzi edo Ibarretxeri...**
Hitzak sinesgarritasuna izango badu, hala egin behar da. Politikoen adierazpenak entzuten ditudanean, ikusten dut oso gauza politak esaten dituztela, hiztegia oso ondo maneiatzen dutela, baina gero ez diote esandakoa euren buruari aplikatzen. Nik beti aurkitzen diet politikoei kontraesanen bat. Giza eskubideen alde omen daudenek presoen aldeko manifestazioak debekatzen dituzte. Batasunekoek, Bilboko manifestazio ospetsuko arduradun bakarra Ertzaintza izan zela diotenean, hori bera ez diote ETAri aplikatzen, eta ETAren ardura Espainiako Estatuarena dela diote...

**● Politikariekiko mesfidati ageri zara, beraz. Baina politikarien lanik gabe, edo lan politikorik gabe, irtenbiderik bai?**
Politikariak, berez, arazoak konpontzeko izendatuta dauden pertsonak dira. Eta, neurri batean, boterea ere beraiek edukitzen dute. Horretarako daude. Baina Euskal Herrian oso maila baxuko politikariak

"Jende askok uste du nik ez dudala lan askorik egiten; baina nik, neure lanean, lan asko egin izan dut"

"Azpeitia herri txiki bat da, eta herri txiki denetan bezala, lagun hurkoaren kontrola handia da. Horrek gezur asko ekartzen ditu"

"Alderdi batean bazaude, alderdiko buruek esandakoa zeure egin behar duzu. Nik nahiago dut burua libre izan"

## PAKO ARISTI URTUZAGA

- **Jaio.** 1963an, Urrestillan.
- **Ikasketak.** Kazetaritza.
- **Lanbideak.** Idazle, kazetari eta gidoilari. Musikaria ere bada.
- **Hastapenak.** 22 urterekin arrakasta lortu zuen bere lehen liburuarekin.

## LIBURUAK

- **Kcappo.** Nobela. 1985.
- **Euskal kantagintza berria.** Kronika. 1985.
- **Martinellok ez du kukurik.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1985.
- **Martinello eta sei pirata.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1986.
- **Irene.** Nobela. 1987.
- **Miren, Garbiñe eta sorgin baten komeriak.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1987.
- **Zazpi pirata balsa batean.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1987.
- **Hamasei paisa eta paralitiko bat.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1989.
- **Bezperan entregatu nituenak.** Kazetaritza artikulu bilduma. 1989.
- **Iraileko ipuin eta poemak.** Ipuin eta poema bilduma. 1989.
- **Krisalida**. Nobela. 1990.
- **Jantoki txinoan.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1991.
- **Itsasontzi baten.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1991.
- **Azken lamiaren bila.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1991.
- **Keniako tximeleta.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1991.
- **Auto-stopeko ipuinak.** Ipuin bilduma. 1994.
- **Castletown.** Poesia. 1996.
- **Urregilearen orduak.** Nobela. 1998.
- **Oherako hitzak.** Poesia. 1998.
- **Benetako lagunen aterbea.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1998.
- **Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 1996????
- **Venezuela, iraultza isilaren hitzak.** Kronika. 2000.
- **Antologia.** Poesia. 2001.
- **Egun normal bat amonaren baserrian.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 2001.
- **Gelatxo, soinuaren bidaia luzea.** Biografia. 2001.
- **Mikel Garmendia.** Biografia. 2001.
- **Deborah hondartza bakarti batean.** Haur eta gazte literatura. Narratiba. 2002.

daudela iruditzen zait. Eta horrela aztertuta, ez zait iruditzen konpontzeko hain zaila denik gurea. Munduko arazo asko konpontzeko bidean dira, eta beste batzuk ez, eta gurea ezezko horretan dago.

**●Politika munduan sartzeko asmotan ala?**
Ez, ez. Sekula ez dut izan inoren tentaziorik edo eskaintzarik, baina nik neuk ere ez dut gogorik izan. Beti eduki izan dut mesfidantza alderdi politikoekiko. Beraien egitura iherarkikoa ez zait sekula gustatu izan. Alderdi batean bazaude, alderdi horretako buruzagiek esandakoa zeure egin behar duzu. Nik nahiago dut burua libre izan, eta nahi dudana esan.

**●Eta esaten duzu, baita esan ere. "Azpeitia herri moralista eta askatasun murritzekoa da". Zuk esandakoa da.**
Nik Azpeitiari sekula ez diot grazia handiegirik aurkitu, baina nonbaiten bizi beharra dago... Dozena bat urte badira Azpeitira etorri nintzela, eta orduan Urrestillan ez nuen aukera onik eduki pisu bat hartzeko, eta Azpeitian bai... Azpeitian jende asko bizi da, eta orokortzea oso zaila izaten da beti. Baina izaten dira halako korronte ideologikoak, edo jarrera soziala erakusten duten joera batzuk; eta Azpeitia, zalantzarik gabe, oso herri tradizionalista eta atzerakoia da, oso moralista eta kontserbadorea. Eta hau esaten dut herria bera ezagututa, ez kanpotik begiratuta.

**●Bota adibideren bat...**
Hor duzu autoarena. Azpeitia, inguruko orografia ezagututa —oso leku menditsuan bizi gara—, herrian jende gehienak erosten dituen autoen indarra ez dago aprobetxatzerik; ezinezkoa da. Hori, zuk daukazun dirua kalean desfilatzeko era bat da, zure estatus ekonomikoa erakusteko modua.

**●Baina hori ez da Azpeitiko kasua bakarrik.**
Ez, noski. Gertatzen dena da Azpeitia herri txikia dela, eta herri txiki denetan bezala, lagun hurkoaren kontrola handia dela. Kontrol horrek jendea behartu egiten du itxura bat mantentzera, eta horrek gezur asko ekartzen ditu jendearen bizitzara. Gauza bat da zuk zer maila ekonomiko daukazun; eta bestea da, hori baino gehiago, maila hori erakustea. Orduan, jendeak auto normal bat erosi beharrean, 3-4 milioi pezetako autoa erosten du.

**●Azpeitiari begira asko idatzi duzu, eta asko kritikatu: abenduaren 2ko euskararen aldeko sinadura bilketa (*Gara*), EAJ-EA (*Azpeitia Eginez*), Ezker Abertzalea (*Ardi-Beltza*)... Azpeitiarrik ez al dago zure kritiketatik salbu?**
Ez, ezta neu ere. Baina ni kritika eraikitzailea egiten saiatzen naiz, hori beti. Eta kritikak kritika, nik neure burua ezkertiartzat daukat, nahiz eta ezkerrak hobetzeko gauzak badituela ikusi. Askotan gehiago pentsatu behar dela uste dut, ideiak eta kontsignak ez direla itsu-itsuan hartu behar. Orain, EAJ-EA ingurua... Euskal Herri osoko EAJ-EA eskuindarrena Azpeitian dagoela iruditzen zait, atzerakoiena, zakarrena.

**●Gustura, beraz, eta botoen azken joera ikusita, gazte jendea ezkertiarragoa datorrela ikusita?**
Bai, horretan zalantzarik ez. Azpeitian Batasuna indarrean dago, bere presentzia lortu du, baina urte askotan Herri Batasunakoa izatea oso gogorra izan da, oso nekosoa, oso desatsegina. Gazteak Batasuna aldera doaz, eta horrek erakusten du zer jarrera izan duten agintariek gazteekiko. Pozgarria da gazte jendea gurasoak baino azkarragoa datorrela ikustea. Orain: Azpeitian agintean EAJ egotea ez da EAJren errua.

**●Esan ohi denez, "herri bakoitzak norberaren neurriko agintaria" eduki ohi duela, alegia.**
Hala da. Jendeak eman dio botoa EAJri. Askotan, jendearen kontrako erabakiak hartu izan ditu EAJk, eta, hala ere, botoa EAJri eman izan dio jende horrek, eta hori da EAJren meritua. Begira zer gertatu zen Urola trenarekin: jendeak hainbeste estimatzen zuen trena kendu ondoren, trena kendu zuen agintari horri berari eman zion jendeak botoa. Horregatik, nik, EAJ baino gehiago, jende hori kritikatzen dut. Jendearen akritikotasuna mingarria egiten zait niri.

**●Azpeitiak eta azpeitiarrok zerbait ona izango dugu ba...**
Gehien, jendea gustatzen zait. Oso ondo konpontzen naiz Azpeitiko jendearekin. Eta nireganako afektu handia sentitzen dut herri honetan. Asko ezagutzen ez dudan jendeak berak ere, noizean behin, eta nik idatzitako artikuluren edo idatziren bat dela medio, kasu egiten dit kalean, "gogor habil" eta halakoak esanez. Gustura ibiltzen naiz ni herrian.

"Neure burua ezkertiartzat daukat, nahiz ezkerrak hobetzeko gauzak dituen. Kontsignak eta ideiak ez dira itsuan hartu behar"

"Jendearen kontrako erabakiak hartu izan ditu EAJk, eta, hala ere, botoa EAJri eman izan dio jende horrek. Hori da EAJren meritua"

# Pako bera Pakok berak esandakoari begira



Pako Aristik asko idatzi izan du, eta gauza asko esan izan ditu. Berak idatzitako edo esandako batzuk gogorarazi dizkiogu, eta gogoeta egiten jarri dugu.

● **"E-maila elkarrizketa hiltzen ari da".** Elkarrizketaren grazia da pertsonari pentsatzeko denbora askorik ez ematea, hori da elkarrizketaren oinarria. Pertsonari pentsatzeko denbora ematen badiozu, e-mailaren bidez erantzuteko aukera ematen badiozu, orduan pertsona horrek bat-batean hitz egiteko, bat-batean pentsatzeko eta bere ideiak espresatzeko daukan ahalmena hiltzen ari zara.

● **"Autoak histeriko bihurtzen du gizonik patxadatsuena".** Lagun batzuek komentatutako kontua da. Jende lasaia dena histeriko jartzen da autoan doanean. Objetuak bereganatu egiten du jende horren patxada, eta oso arriskutsua da.

● **"Diruak jendea aldatzen du".** Dudarik gabe. Nik ezagutu izan dut jendea gaztetan diru askorik ez zuena, eta gerora dirua irabazi egin duena. Kasu askotan, jendeari halako harrokeria tontoa ematen dio diruak.

● **"Sakelako telefonoak tontoen belaunaldi bat sortu du".** Askotan entzun izan ditut sakelako telefono bidez eginiko elkarrizketak, denek oso ozen hitz egiten dute eta. Eta ez dakit elkarrizketa zentzudunik entzun dudan... Ez da entzuten, eta hori ez da nire mania bat, datu enpiriko bat da: ez diot inori entzun ezer zentzudunik esaten sakelako telefonotik. Entzuten dudanean, esango dizut.

● **"Telebistak aspermenaren aurka borrokan egiteko plazerra kendu digu".** Lehen, telebista ez zegoenean etxean hainbesteraino sartuta, gauzak sinbolo bihurtzen saiatzen ginen. Egur bati bi gurpil jarri, eta jada gurdi bat genuen. Telebistarekin, dena emanda dago. Lehen, aspermenaren kontrako borroka irudimenarekin egiten zen, eta telebistak hori kendu digu. ●

> "Jende lasaia dena histeriko jartzen da autoan doanean; arriskutsua da"

> "Ez dakit sakelako telefono bidezko elkarrizketa zentzudunik entzun dudan"



# IKAS EZAZU DOAN INTERNETEN NABIGATZEN

KZ gunea

Interneterako doako Sarbidea eta Prestakuntza eskaintzen dituen Zentro-sarea

### BIZKAIA

**Arrigorriaga**
Paseo Urgoiti, 3 • Tel.: 94 6714608

**Bakio**
Barrio Urkizaur, 28 • Tel.: 94 6195718

**Balmaseda**
Martín Mendia, 15 • Tel.: 94 6801390

**Barakaldo**
La Florida, 14 - 16 • Tel.: 94 4389923

**Basauri**
Ibaigane, 2 • Tel.: 94 4496641

**Berango**
Abarotxu bidea, 17 • Tel.: 94 6682502

**Bermeo**
Zubiaur tar Kepa, 26 – 28 1goa
Tel.: 94 6881194

**Berriz**
J. V. Zengotitabengoa, 8
Tel.: 94 6225767

**Bilbao -Basurto**
Luis Briñas, 18 • Tel.: 94 4413971

**Bilbao -Begoña**
Circo Amateur Club Deportivo, 2
Tel.: 94 4734890

**Bilbao -Uribarri**
Plaza Moraza Enparantza, 4 A
Tel.: 94 4460972

**Durango**
Monagotorre, 2 behea
Tel.: 94 6203863

**Elorrio**
Berriotxoa, 16 bajo/baxua
Tel.: 94 6583189

**Ermua**
Cruce Kaltzango, s/n
Tel.: 943 174702

**Etxebarri**
Parque Bekosolo Parkea, 2
Tel.: 94 4492622

**Getxo-Areeta**
Las Mercedes, 13 – 4gna (Areeta)
Tel.: 94 4316589

**Getxo-Algorta**
Avenida Algorta etorbidea, 98
Tel.: 94 4911724

**Gordexola**
Plaza Molina Enparantza, 11
Tel.: 94 6798066

**Gorliz**
Plaza de la Iglesia, s/n (udaletxea)
Tel.: 94 6775200

**Güeñes**
Urrestieta, 21 bajo (antigua ikastola)
Tel.: 94 6692350

**Igorre**
Elexalde, 30 • Tel.: 94 6737018

**Iurreta**
Bidebarrieta, 4 (Ibarretxe Kultur Etxea)
Tel.: 94 6203826

**Karrantza**
Barrio Soscaño, 50 • Tel.: 94 6106970

**Leioa**
Sabino Arana, 48 • Tel.:94 4636503

**Markina-Xemein**
Xemein etorbidea, 13
Tel.: 94 6168429

**Mungia**
Gamizbidea, 30-32• Tel.: 94 6741217

**Orduña**
Gran Vía, 10 • Tel.: 945 384539

**Portugalete**
Casilda Iturrizar, s/n • Tel.: 94 4954158

**Santurtzi**
Los Cuetos s/n (Instituto de FP)
Tel.: 94 4611768

**Sestao**
San Diego, 12 • Tel.: 94 4950826

**Sopelana**
Gatzarriñe, 2 • Tel.: 94 6762477

**Zalla**
Maestra Consuelo Robredo, 18
Tel.: 94 6390332

### ARABA

**Amurrio**
Landako, 8 • Tel.: 945 890514

**Asparrena**
Ilarduibide, 7 (Kultur Etxea)
Tel.: 945 304227

**Artziniega**
Cantón de la Parroquia, 2
Tel.: 945 396513

**Kanpezu**
Debajo de las casas, 2 (Kultur Etxea)
Tel.: 945 415157

**Laguardia**
Sancho Abarca, 16 • Tel.: 945 600517

**Laudio-Llodio**
Lamuza, 13 • Tel.: 94 6728397

**Legutiano**
Plaza Ortiz de Zarate, s/n (Kultur Etxea)
Tel.: 945 455342

**Vitoria-Gasteiz -Hegoalde**
Alberto Schommer, 10 (centro cívico)
Tel.: 945 230055

**Vitoria-Gasteiz -Lakua**
Senda de los Echánove, s/n
(centro cívico) Tel.: 945 178225

**Vitoria-Gasteiz -Aldabe**
Eulogio Serdán, 2 bajo (centro cívico)
Tel.: 945 139667

**Salvatierra-Agurain**
Fueros, 16 (club de jubilados)
Tel.: 945 301072

**Zuia**
Añureta, 2 (Casa Vea-Murguía)
Tel.: 945 430740

### GIPUZKOA

**Alegia**
Beistin Auzoa, z/g (Kultur Etxea)
Tel.: 943 698869

**Arrasate**
Otalora, 10
Tel.: 943 793554

**Astigarraga**
Tomás Alba, 13
Tel.: 943 557673

**Azkoitia**
Trenbidearen Zumardia, 1
Tel.: 943 850146

**Azpeitia**
Foru Ibilbidea, 18 • Tel.: 943 811864

**Beasain**
Oriako Pasealekua, 12
Tel.: 943 160147

**Deba**
Ifar kalea, 4 baxua • Tel.: 943 192107

**Donostia-San Sebastián -Alderdi Eder**
Parque Alderdi Eder Parkea, z/g
Tel.: 943 423865

**Donostia-San Sebastián -Ernest Lluch**
Paseo Anoeta Pasealekua, 7
Tel.: 943 465718

**Donostia-San Sebastián -Egia**
Baztán, 21 • Tel.: 943 281521

**Donostia-San Sebastián -Larrotxene**
Intxaurrondo, 57 • Tel.: 943 280731

**Donostia-San Sebastián -Casares**
Camino Darrieta Bidea, 1
Tel.: 943 352745

**Errenteria**
Olibet, 6 baxua/bajo • Tel.: 943 520692

**Eibar**
Carmen Kalea, 3 bajo/baxua
Tel.: 943 120390

**Elgoibar**
Nafarroa plaza, 1-2gn. pisua
Tel.: 943 748828

**Idiazabal**
Kale Nagusia, 52 (Pilarrenea)
Tel.: 943 187132

**Ikaztegieta**
San Lorenzo, s/n • Tel.: 943 650507

**Irún**
Alfonso Morales, 4 • Tel.: 943 615571

**Lasarte-Oria**
Oriamendi plaza, 2 bajo/baxua
Tel.: 943 360568

**Legazpi**
Plaza Latxartegi Enparantza, 3
Tel.: 943 737031

**Mendaro**
Herriko Enparantza, 1 (udaletxea)
Tel.: 943 756013

**Oiartzun**
Madarensoro plaza (frontón)
Tel.: 943 490875

**Ordizia**
Domingo Unanue Plaza, 8 behea
Tel.: 943 884378

**Soraluze**
Baltegieta, 18
Tel.: 943 753045

**Tolosa**
Pablo Gorosabel, 34 – B
Tel.: 943 653720

**Urretxu**
Barrenkale, z/g
Tel.: 943 725359

**Zarautz**
Zigordia, 34 • Tel.: 943 135046

**Zumaia**
Foronda Kultur Etxea
Tel.: 943 862866

**Zumarraga**
Avda. Iparragirre Hiribidea, 4
Tel.: 943 720728

### HURRENGOAK

**ARABA**
Alegría-Dulantzi
Elciego
Iruña de Oca
Izarra
Labastida
Oion

**BIZKAIA**
Abanto
Basauri 2
Bilbao -Deusto
Bilbao -Otxarkoaga
Galdakao
Larrabetzu
Lekeitio
Loiu
Mutriku
Ondarroa
Ortuella
Usansolo

**GIPUZKOA**
Bergara
Donostia -Lugaritz
Hernani
Hondarribia
Lezo
Olaberria
Oñati
Orio
Zaldibia
Zegama
Zerain

:-) euskadi
informazio gizartean en la sociedad de la información

FEDER-PRAI

Informa zaitez zure udaletxean ala deitu 012 telefono zenbakira (Eusko Jaurlaritza)

## datue

**100.** partidua jokatu zuen Realarekin Mikel Aranburu futbolariak irailaren 22an. Javier Irureta entrenatzaile zela egin zuen debuta lehen taldean, eta jadanik laugarren denboraldia du. Normalean hasierako hamaikakoan jokatzen du.

## dato historikue

**3** dukato ordaindu zitzaizkion Juan de Urbietari 1569. urtean Gorputz Egunez egindako Ezpata-Dantza emanaldiagatik. Azpeitian Gorputz Egunean dantzatzeko usadioa galdu egin da; Elgoibar eta Oñatin oraindik gordetzen da.

## esaerie

“Enarak lurretik urrian dabiltzanian, euria urrian”

## liburutik ttak

“Euskal gizartearen barruan prentsa-kontsumoaren, erabileren eta ideologien artean dagoen erlazioa eztabaidatsua da. Halatan, Euskal Herrian saltzen diren egunkarien %75,2 ez-nazionalistak badira ere (Euskal Herrian edo Madrilen argitaratuak), EAEko Legebiltzarreko aulkien %52 alderdi nazionalistek okupatuak dira. Haustura ez da Nafarroan gertatzen, hedabideen kontsumoa eta hauteskunde-ordezkaritza askoz proportzio neurtuagoan baitaude”.

**Petxo Idoiaga eta Txema Ramirez de la Piscina ‘(in)komunikazioaren atarian. Prentsa eta euskal gatazka’. Zerberri, Alberdania argitaletxea. 2002. urtea.**

## kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



# ABUZTUKO OPORRETAKO USTEKABEA

Abuztuan egin dituen euri gabeko goiz gutxi horietako batean, Donostiako Kontxa pasealekuan nintzen. Eguerdiko hamabiak gertu, emakume gazte bat gelditu eta galdetu zidan: “*Buenas señor. ¿Necesita acompañante?*”. Ustekabean harrapatu ninduen, baina segundu bat nahikoa izan nuen neskatxak itxura egokia zuela jakiteko, aurrez osatuta eta nahiko dotore jantzita zen. Aurpegia ordea, erabat zuria eta begirada nolabait galduta… Aurrean banuen ere, beste nonbait izango bazen bezala. Ezetz erantzun nion, eta bai azkar damutu ere, baina alferrik. Zergatik ez galdetu nolako zerbitzuak eskaintzen zizkidan, eta zer jaso asmo zuen ordaintzat? Nire erantzuna jaso eta alde egin zuenean begiratu nion berriro berari. Atzealdea, neurrikoa dudarik gabe… Nire begirada kentzean sortu zitzaizkidan galderak. Zergatik niri horrelako galdera? Ez zuen behar txikia, dirua seguruenik. Ederra naiz bada edozeinen aurrean erakusketa egiteko! Aurpegian urteen seinale bizia, txanpona auzoan, begi gabeko zizarea zulorik aurkitu ezinean denboraldian, hezurren tokian burdinak zenbait tokitan… Olioa emanda ere herrenik egin gabe ezin ibili. Bakarrik izan banintz Kontxa gainean, baina ni baino gizonezko itxurazkorik bazen. Ez dut uste denbora luzea igaroko zenik, neskak beste bati galdera berdina egin bitartean. Baina, aurrean izan nuen uneko begirada galdua ahaztu ezinik naiz…

Gogoratu nuen, 1774ko *Andando* deituriko Maria Inaxi Ubizi eta Mariana Iruin azpeitiarren arteko auzia, ezkongabeak biak; lehenak bi haur zituen, eta bigarrenak bat. Azken honek “Inaxi *Andando*, alcahueta, puta, cantonera,

## garai bateko Azpeitiye ...Joxe Mari Zubizarretak kontatua

# Nola joan herritik kanpora?

### Egun, Azpeititik kanpora joateko ez da arazorik izaten, baina gure aiton-amonen garaian bestelakoak ziren kontuak

**Ion Aranburu**

Gaur egun ez dugu arazo handirik izaten herritik irtetzeko. Garraio publikoan edo norbanakoaren autoarekin edozein bazterretara iristeko gai baikara. Baina lehen gauzak beste modu batera izaten ziren. Joxe Mari Zubizarretak kontatzen duenez, lehen trena erabiltzen zuten inguruko herrietara joateko. “Zumaiara eta Zestoara joateko Urola trena hartzen genuen, han izaten ziren dantzaldietara joateko eta. Beldurrez joaten ginen, trena izugarri mugitzen baitzen. Askotan trenbidetik irten egin behar zuela zirudien”.

Gerturagoko tokietara joateko, oinez edo bizikletan mugitzen ziren. “Urrestillara eta inguruko tokietara bizikletan joaten ginen. Eta bizikletarik ez bazegoen, oinez joan behar izaten genuen”. Joxe Marik gogoan du abarketen zola ez gastatzeko zer egiten zuten. “Asko ibiltzen ginen, eta abarketen zola berehala gastatzen ziren. Horiek ez gastatzeko errepideetako galipota erabili ohi genuen. Bero handia egiten zuenean galipota bigundu egiten zen, eta bertan igurtzitzen genituan oinak. Ondoren, errepide bazterrean egoten ziren harri txintxorrak zapaltzen genituen, eta abarketentzat zola berri eta iraunkorragoa izaten genuen. Hala, gehiago irauten zuten alpargatak”.

**ORDUKO AUTOBUSAK.** Gaur egun, autobusa da Azpetiko garraio publiko bakarra, baina gure aiton-amonek ez zuten gehiegi erabiltzen. Izan ere, gaur egun dauden errepideak ez zuten ordungoen tankerarik. “Orduan bidezidorrak izaten ziren, eta bertatik ibiltzen ziren Goiko Errotako autobusak”. Joxe Marik gogoan du Azkarate gaineko futbol partidetara nola joaten ziren autobusez. “Orduan autobusak bi solairukoak ziren, eta futbol partidatik bueltan askotan gazteak autobusetik salto egin eta autobusaren aldamenetik lasterka joaten ziren.



Garai bateko herritar batzuk herriko plazan. / Imanol Elias-en artxibategia

**BI EMAKUMEREN AUZIA.** Udako egun bateko gertaera batek, 1774an bi emakume azpeitiarrek izandako auzia gogora ekarri zidan

abrazada eta buhosa" deitu omen zion bi edo hiru bider. Ondoren aitortuz, zerbait orraztu asmoz seguruenik, berak esandakoak "*Andando* naparra, alcahueta eta buhosa izan zirela eta ez gainontzekoak". Zer mailatan jarri dezakegu ustekabean hurbildu zitzaidan emakumea?



Urolako trena Azpeitiko geltokira heltzen.

"Urrestilla eta inguruko tokietara bizikletan edo oinez joaten ginen"

**J.M. Zubizarreta**



Askotan, gainera, autobusa pasatu egiten genuen eta autobus gidaria haserretu egiten zitzaigun".

Garraioak ordaintzeko dirurik ez bazuten, etxean gelditu behar izaten zuten. "Diru gutxi izaten genuen eta askotan etxean gelditzen ginen". Etxeetan, kaletik ekarritako txanpon txikiak kikaran uzteko ohitura zegoen. "Kikara etxe guztietan egoten zen, baina bertatik eta txanpon bakarra hartuz gero, ama berehala ohartzen zen, eta berriro kikaran utzi behar izaten genuen hartutako txanpona". Baina garraioak baino behar handiagoak bazeudela gogoratzen du Joxe Marik: "Normalean, dirua janaria erosteko erabiltzen genuen, orduan beti goseak egoten ginen eta". Janaria erositakoan dirurik gelditzen bazitzaien, orduan bapo ziren, trena edo bizikleta hartu eta inguruko herriren bateko dantzaldietara joateko.

## xapo euskerie

Aitor Arruti
Arantzazu Azpillaga
(itzultzaileak)

## ERREMATEA... ESPAINOLEZ!!!

*Hi, ba al dakin lehenguen Halako Bestiekin ikusi nuela Zarauzko malekoien?*

*- Ez den egiye izengo! Inposiblie den!*

*- Hantxe zabiltzenan bada lasai asko.*

*- ¡Pero si me dijo que no le quería ni ver!*

*- Pues ya ves.*

*- Bueno, me tengo que ir. Hitz egingo dinagu berriz ere.*

*- Bai! ¡A seguir bien!*

Horrelako elkarrizketak edozein unetan entzuten dira Azpeitian. Berriketan ari garenean esandakoa errematatzeko zerbait erantsi beharra sentituta, gaztelania erabiltzen dugu errazkeriaz. Zer dela eta? Hizkuntza *dotoreagoa* erabiltzeagatik, agian? Atzean arrazoi bat baino gehiago egon daitezke:

- Batek izan dezake gaztelaniaz hitz egiteko joera, eta bestea ere horretan ohitu dezake, nahiz eta berez beti euskaraz aritu. Lagunak direnez, ez dute betiko ohitura bat zapuztu nahi, eta noski gaztelania da baliotsuena.
- Bidasoaren bi aldeetako euskaldunok geurea ez dugun kultura batean hazi izan garenez, erraz jo ohi dugu gaztelania edo frantsesera. Euskal hiztun sena falta zaigu askotan, eta egokiagoa iruditzen zaigu berez arrotza izan beharko lukeena.
- Elkarrizketa euskara hutsean burutuz gero, ***como que le falta algo***. Ez litzateke elkarrizketa osoa izango, grazia, hurbiltasuna, hitz jokoak... edo auskalo zer faltako litzaioke. Euskara ez da guretzat inguruko hizkuntzak bezain kolokiala, nonbait.

**osasune** Julian Bereziartua (medikua)



# GURE AZKAZALAK ETA OSASUNA (I)

Gutxitan pentsatzen dugu zertarako ditugun azkazalak. Eta are gutxiagotan konparatzen ditugu animalienekin.

Hatzen gune distala babesten du; hor dugu ukimen-sentsibilitaterik handiena, eta azkazal bat galtzen badugu, hain beharrezkoa den sentsibilitate hori galduko dugu. Azkazala, xafla erdi-gardena eta malgu samarra da; hildako zelulaz osatuta dago, eta horregatik ez digu minik ematen mozten dugunean. Eskuetakoak astero milimetro bat hazten dira, eta oinetakoak milimetro erdia. Ilargiaren antzeko azkazalaren behe aldeko zatiak ez du osasunarekin zerikusirik, nahiz eta zenbait pertsonek anemia adierazten dutela esan.

Ondo mantentzeko, oinarrizko arreta behar dute: eskuila leunez garbitu, azalaren milimeto bat moztu, garbigarri gogorrez ez busti, zauririk ez egin hozkatuz eta hazpizarrak altxatuz (*padrastros*) edo infekzio birikoak sortaraziz (garatxoak). Pertsona helduen hatzamar erako azkazala, behar adinako odol-zirkulazioa ez duelako izan daiteke. Konkortutakoak eta danborra jotzeko zotzaren formako behatz muturrak bihotzeko arazoak daudela adierazten du sarritan. Mota zuriskak azaltzen badira, onddoak sortu direla edo lisibaz busti direla esaten da gehienetan. Geruzetan hausten bazaigu, xaboi gogorrak erabili ditugulako edo elikaduran karea edo burdina falta delako izaten da.

● **AZKAZALAK.** Eskuetakoak astero milimetro bat hazten dira, eta oinetakoak milimetro erdia

**irakurketie**

## OSO GUTXI IRAKURTZEN DA AZPEITIAN

"Azpeitian irakurtzeko zaletasun gutxi dago", hori da behintzat herriko liburudendetako saltzaileek diotena. Gainera, erdarazko eta euskarazko liburuen irakurleen artean ez dago alderik, bietatik saltzen da gutxi. Saltzen den gutxian, dudarik gabe, eleberria da beste guztien gainetik azpeitiarrok gustokoen duguna.

Gehienbat *poltsikoko ediziokak* edoeta *Best Seller*-ak erosten ditugu, hauek besteak baino merkeagoak baitira. Aurten euskaraz gehien saldutakoak Joseba Sarrionandiaren *Lagun Izoztua*, Hasier Etxeberriaren *Bost Idazle* eta Fernando Morilloren *Ortzadarra Sutan* izan dira. Etorkizunari begira herriko irakurzaletasunak ez du aldaketa nabarmenik izango, Azpeitiko haur eta gazteen jokaera kontutan hartuta. Hauek eskolan behartutako liburuak baino ez dituzte erosten, eta gero eta gutxiago dira beren semealabentzak ipuinak, komikiak, eleberriak... erosten dituzten gurasoak.

**gertuko pasadizue**

## IRRATIAN ESANAK ENTZUNEZ

● **1980-1981: "Iraurgik lehenengo txapelketa irabazi zuen: Goierrik antolatzen zuen Gabonetako Txapelketa. Hori zela eta, Carmelo Otaegi kazetariak Josu Arregi eta Iñaki Uria Loiola Herri Irratira eraman zituen elkarrizketatzera. Iraurgikoek elkarrizketa grabatu egin zuten eta hurrengo entrenamenduan, Betharramdarretara autoa sartu, kasetearen bolumena igo eta ilusioz gainezka entzun zuten elkarrizketa, bukatzen zenean berriro hasieratik entzunez".**




**'Iraurgi Saskibaloi Elkartea. 25. urteurrena' liburutik hartua. 2002. urtea.**

ZALDIKO



SALBE 15 943-151275
ESTETIKA ETA OPARIAK

KIRURI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatuan aukera handia
URBISTONDO
MARGOAK
"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura
KAITO TELEBISTA
Grabatutako bideoen kopiak egiten dira





81 53 35

UROLA ERDIKO MERKATARIEN ELKARTEA

# Azpeitiko dendariak,
# zuen ondoan,
# zuen zerbitzura

**CICLOS BENI**
Loiolabide Tel. 150629

**LARRAÑAGA KIROLAK**
Arana, 3 Tel. 811365

**ODRIOZOLA HARATEGIA**
Arana, 14 Tel. 811015

**EGOKI JANARIAK**
Barrenetxe, 8 Tel.815490

**ZABALA HARATEGIA**
Arrabal, 8 Tel.811671

**NEREA MERTZERIA**
Arrabala Tel.812862

**ZOKOA ANDREEN JANTZIA**
Arrabala Tel.815056

**ARKUPE KIOSKOA**
En. Nagusia Tel.815207

**AGIRRE OPARIDENDA**
Erdi Kale, 1 Tel.811325

**FURUNDARENA OINETAKOAK**
Erdi Kale, 9 Tel.811143

**URIA ALFONBRAK**
Erdi Kale, 29 Tel.812337

**AMENABAR JANARIAK**
Etxe-alai, 3 Tel.150065

**SAN SEBASTIAN HARATEGIA**
Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

**EGAÑA GOZOTEGIA**
Goiko Kale, 10 Tel.811885

**JAKA JANARIAK**
Harzubia, 19 Tel.816549

**ANDONI FRUITUDENDA**
Harzubia, 29 Tel.812502

**AITZAKI KIROLAK**
J.A. Agirre, 4 Tel.150738

**OTOLA KINKILADENDA**
J.A. Agirre, 7 Tel.811366

**SANTI LAZKANO KIROLAK**
J. Artetxe, 1 Tel.811650

**BALENCIAGA**
J. Artetxe, 10 Tel.813400

**ERROTAUNDI OKINDEGIA**
Euskal Herria

**MARTZALA OINETAKOAK**
Olazko Amaren Plaza

**BELOKI HARATEGIA**
J. Artetxe, 21 Tel.151392

**ARROSPIDE OINETAKOAK**
Loiolabide, 1 Tel. 811914

**EMAITZ LURRINDENDA**
J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

**ORDULARI BITXIDENDA**
J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

**ARANTXA HAUR JANTZIAK**
J.A. Artetxe, 8 Tel.812429

**BABESA GAZTE MODA**
Urbitarte, 9 Tel.151369

**IRIS MERTZERIA**
La Salbe, 11 Tel.813298

**IRATXO JOSTAILUAK**
La Salbe, 24 Tel.150530

**ZALDIKO LURRINDENDA**
La Salbe, 15 Tel.151275

**ICIAR ILEAPAINDEGIA**
Loiolabide, 19 Tel.810217

**ARADI KIROLAK**
Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

**ZURI BELTZ JANTZIAK**
Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

**MATXIN ZESTOAK**
Pablo VI, 39 Tel.810116

**UKABI ORDENAGAILUA**
La Salbe, 39 Tel.150101

**LUR LORA DENDA**
Santiago, 11 Tel.150085

**URKE ARGAZKIAK**
Urbitarte, 4 Tel.151287

**UROLA BIDAI AGENTZIA**
Arrabal Tel.150804

**M. GRAL . SEGUROS**
Pablo VI, 5 Tel.151649

**COOP. SUKALDEAK**
Arana, 7 Tel.812309

**URBISTONDO MARGOAK**
La Salbe, 35 Tel.815781

**SOINU ELEKTROGAILUAK**
Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

**DUNPI JOSTAILUAK**
Erdi kalea, 3 Tel.151890
Foru ibilbidea, 3 Tel.813969

## 'Imanol Elias' liburua



# Antzerki-egilea, historialaria, alkatea, idazlea, irakaslea... gauza asko izan da Imanol Elias, beti herriaren alde. Hona Uztarriak Mailo Oiarzabalen eskutik egindako biografiaren bi zati eta argazkiak

### Mailo Oiarzabal

Mailo Oiarzabalek egin du Imanol Eliasi buruzko liburuxka biografikoa. Urrestildarra da Mailo (1971), kazetaria. 2000an *Azpeitiko Jaiak* liburua egin zuen beste batzuekin batera.

"Imanol Eliasek ezagutza egarri ikaragarria du, eta ni horrekin geratuko nintzateke"




• **LIBURUA:** Imanol Elias • **IZENBURUA:** Herria maitatzeko era asko daudelako • **EGILEA:** Mailo Oiarzabal • **ARGITALPENA:** Uztarria Azpeitiko Kultur Koordinadora • **AURKEZPENA:** Irailaren 28an izan zen • **GENEROA:** Biografia • **ORRIALDEAK:** 163 • **SALNEURRIA:** 7 euro • **SALTOKIAK:** Lagun Onak Mendi Bazkuna, Zuhatz, Pastorkua, Eklipse, Belaetxe, Uztarria, Etxe-Aitz (Azkoitia)

## 'Inoxente', Manuel Eliasena

Antzerkian aktore eta zuzendari gisa parte hartzeaz gain, 1960ko hamarkadak aparteko garrantzia izan zuen Imanol Eliasen idazle ibilbidean. Are gehiago, esan daiteke hamarkada horren aurreneko urteetan jaio zela Imanol Elias idazlea. Lehendabiziko idazlanak Loiola Herri Irratirako egin zituen. "Loiolak eman zituen lehenengo euskarazko lanak nik idatzitakoak izan ziren", dio Imanolek 1962an aireratu ziren *Andre-gizonak* irratsaioei buruz. Irratirako idazteaz gain, Loiola Herri Irratiko lehen urte haietan esatari lanetan ere aritu zen; "baina laster jabetu nintzen hura ez zela niretzako egiten", dio.

Oargik bultzatuta Azpeitian euskarazko antzerkiak urte haietan ezagutu zuen berpizkundearen hariari eutsi zion, era berean, Imanol Eliasek. Juanito Bikendi eta beste zenbait bidelagun hartuta, han eta hemen antzezlanak egin zituen 1960ko hamarkada osoan zehar. Antzerkiarekiko zaletasuna idaztearekin bat eginez, Imanol Eliasek 1964an sortu zuen bere aurreneko antzezlana: *Inoxente*. Gaztelerazko beste baten moldaketa izan zen hura, euskaratua. Eta baita taularatua izan zen egile azpeitiar honen lehendabiziko lana ere. Komedia erako lan horren estreinaldia 1966ko Santo Tomas egunean egin zen, Azpeitian, Soreasu antzokian, eta 1967ko urtarrilean, berriz, Azkoitian Olimpia zine aretoan eman zuten berriro. "*Txokolo*-tar txistularietako bat hil egin zen, eta haren alargunarentzat dirua biltzeko antolatu genuen *Inoxente*-ren emanaldia —gogoratzen du Imanolek—. Hemen zortzi mila pezeta baino gehiago bildu ziren. Garai hartan sarrerak igual hogei duro edo gutxiago balio zuela kontuan hartuta, jendeak oso ondo erantzun zuela ikusten da".

Imanol Eliasek idatzita taularatu zen lehendabiziko lan hori, Grupo Artístico Azpeitiano izeneko taldeak eman zuen. Berez ez zegoen izen hori zeraman antzerki talderik, baina antzeko izenen bat jarri behar, dirudienez, diktadura garai hartako agintariek baimena luzatzeko. Espainiako Informazio eta Turismo Ministerioko Gipuzkoako delegaziora eskaera luzatzea ezinbestekoa zen, beste hainbat konturako bezala, herri mailan antzerki lan bat aurkezteko. Hortik Madrilera zuzentzen ziren eskaerak, antzezlanaren libretoarekin batera, hango Dirección General de Cinematografía y Teatroko Censura Teatral sailetik igarotzeko. Hangoen oniritzia adierazten zuen zigilua gainean zutela itzultzen ziren azkenean eskaera orrialdeak. Grupo Artístico Azpeitiano izen serioarekin batera, Imanol izen *susmagarria* baino askoz *fidagarriagoa* zen Manuelekin ordezkatzea ere ezin ahaztu, noski. Horrela, Manuel Elias agertzen zen *Inoxente*-ren egile gisa, eta ez Imanol Elias. "Eskaera ofizial ugari egitea beste erremediorik ez zen egoten antzerkia emateko arazorik ez izateko. Eta eskaeratan Imanol Eliasik ez jarri, Manuel ipini badaezpada ere, hainbeste lan hartu eta gero antzerkia eman gabe gelditzeko arriskua egoten zen eta. Gero, askotan, emanaldia egiteko bi egun falta ziren arte ez zitzaigun baietza iristen, eta iristen zenean agian 'halako bi orrialde kendu' agintzen zizuten. Baina ordurako aurrera segitu eta guztia ematen zen, eta kito. Aurrera eramateko gai zaila zen, baina ez genuen aparteko arazorik izaten", azaltzen du Imanol Eliasek. Hori bai, *Inoxente*-k '*únicamente para mayores de 18 años*' baimena eskuratu zuen, nahiz eta, Imanolen esanetan, "ezer ez eduki". Garaiko zentsura famatuaren komeriak.

## Azpeitiko katuak eta arkakusoak

Azpeitiko udaletxeko artxibategian ere garai hartan egin zituen lehendabiziko sartu-irteeak, baita bertako egoera kaskarraren ondorioak jasan ere. Izan ere, gaur egun informatizatuta eta askoz egokiago antolatuta dagoen artxibategiarekin zerikusi txikia zeukan toki umela, zikina eta utzitakoa zen Azpeitiko Udal Artxiba-





**ANTZERKI ZALEA.** Antzerkia izan da Imanol Eliasen afiziorik maiteenetakoa. Ezkerrean, Luis Mari Galdosekin —eskuinekoa— Azpeitiko Kasinoan antzezten. Eskuinean, San Joanen paperean 'Pasioa'-n, Felisa Orbegozorekin eta Maria Pilar Lapeirarekin.



**HERRIGINTZAN.** Imanol Eliasek herri mugimenduetan ere parte hartu izan du. 1974an, esaterako, Erri-Zaleko presidente izendatu zuten. Argazkian, Miguel Bereziartua 'Miel Olarte'-ri bakailao lehiaketako saria ematen 1974ko Santo Tomasetan.

tegia urte haietan. Baita geroxeago ere, 1997an argitaratu zen *Azpeitia Historian zehar*-erako lanean aritu zenean ere hala-moduzko baldintzatan aritzea tokatu baitzitzaion Imanoli. 1960ko hamarkada bukaerara itzulita, ordea, artxibategiaren egoera benetan beldurgarria zen, Imanolek kontatzen duenaren arabera. "Askotan leihoak irekita egoten ziren. Sareak zituzten haiek bere garaian, baina ordurako sare zuloak ziren. Katuak ibiltzen ziren eta batzutan atzera botatzeko moduko usaina egoten zen". Katuak sartu-irtenean zirela, xaguekin eta arratoiekin topo egiteko aukerak murriztu egiten ziren behintzat...

Baina, hain justu, katuekin zuzeneko harremana zeukaten beste *maizter* batzuekin oso bestelako kontuak ezagutu zituen Imanolek. Hala, artxibategira eginiko bisitaldietako batean, bere garaian iragarki taula gisa erabilitako bat aurkitu zuen, oihal berde batekin tapizatua. Tresna egokia iruditu zitzaion, liburuak taularen gainean jarri eta bere lana modu erosoagoan egin ahal izateko. Baina taulak ezusteko oparia zeukan. "Neuk sentitzen nuen, ttak, ttak, ttak, besoetan zerbait. Zer izango eta arkakusoak! Neuk ikusten nituen besoetan saltoka. Oihal berdea josita zegoen", dio, une hartako "azkura eta nazka ikara" gogoratzean.

Aurrezi kutxaren deialdiei erantzunez egindako hiru liburuxka haiekin sartu zen Imanol Elias historiagintzaren barrenetan. Hasierako haietan bezala ondoren argitaratzen joan den lanetan ere, azpeitiarraren ikerketa eremua beti Azpeitian eta berau kokatzen den ingurune geografikoan egon da, bere herriarekin duen haustezinezko loturaren eta erakarpenaren adierazle.

1981ean ezagutarazi zuen bere laugarren historia lana. *Juan Antxieta. Apuntes históricos* izenburua zeraman, eta argitaratzaile lanak bete zituen Kutxaren aginduz idatzi zuen. ●



**HISTORIA IDATZIZ.** Azpeitiko eta inguruetako hainbat historia liburu idatzi du Imanolek. Argazkian, 'Curiosidades históricas de Beizama, Urrestilla y Machinventa'-ren aurkezpenan, 1976an.



**ALKATE ERE BAI.** Politika ere jorratu izan du Imanol Eliasek, beti Azpeitian, zinegotzi eta alkate izanik. 1983tik 1984a arte izan zen alkate. Argazkian, udaletxean, alkatearen bulegoan.

Nerea Aranburu

Azpeitiko Waterpolo Taldea orain dela zortzi urte sortu zen, 1994an hain zuzen. Garai hartan igeriketan ibiltzen ziren hainbat pertsonen ideia izan zen horrelako kirol talde bat sortzea.

Behin taldea osatu zutenean, aurrera egiteko pausoak ematen hasi ziren. Waterpolo taldeko kide Angel Ruizen esanetan, "orain zortzi urte, taldea osatu zenean, helburu nagusia ondo pasatzea zen. Garai haietan inork ez baitzekien zehazki nola jolasten zen kirol honetan. Orduan, gure nahia partidu batzuk jokatu eta denborarekin esperientzia hartzea zen. Apurka kirola gehiago ezagutuz joan gara". Hasierako urteetan, jende ugarik azaldu zuen waterpoloan jokatzeko interesa, eta talde polita osatu zuten. Igeriketan ibilitakoak eta jada utzita zutenak ere animatu egin ziren kirol talde berria osatzeko. 15-16 kideko taldetxoa bildu zen.

> “Orain zortzi urte, taldea osatu zenean, helburu nagusia ondo pasatzea zen”

**Antonio Ruiz**
(waterpoloko jokalaria)

> “Guk jendea animatu nahi dugu, oso giro ona baitago taldean, eta merezi duelako”

**Angel Ruiz**
(waterpoloko jokalaria)

Gaur egungo egoera, ordea, guztiz bestelakoa da. Urte hauetan denetan hainbat lagunek utzi dute talde, eta zailtasunak dituzte jende berria taldean sartzeko: "Iaz hamahiru lagun ginen taldean, baina denboraldi bukaeran batzuek utzi egin zuten. Aurten, gehienera jota, 11 izango gara, eta nahiko larri ibiliko gara".

Azpeitiko Waterpolo Taldea azkeneko denboraldietan Gipuzkoako mailan jokatzen aritu da. Lehen urteetan, aldiz, Euskadi kategorian ere jokatu zuen. "Euskadi kategorian jokatzen bada, kanpora ateratzeko aukera duzu; besteak beste, Santanderrera, Kataluniara eta Burgosera", dio Angel Ruiz jokalariak. Arazoak tarteko, Gipuzkoa mailan soilik parte hartzea erabaki zuten.

Taldeak sekula ez du entrenatzailerik izan. Denen artean taldea aurrera ateratzen saiatzen dira. Orain, jendea animatzea baino ez zaie falta. "Badakigu jende askok ez dakiela herrian taldea dagoenik ere. Guk jendea animatu nahi dugu, oso giro ona dagoelako, eta merezi duelako". ●




Angel Ruiz

**datuak**

- **11 KIDE.** Urte hauetan, waterpolo taldea 11 jokalarik osatzen dute.
- **7 JOKALARI.** Waterpoloko partida bat jokatu ahal izateko, gutxienez zazpi jokalari behar dira.
- **3-4 ALDAKETA.** Partidak irauten duen denboran, gutxienez aldaketa batzuk egitea beharrezkoa da, oso zaila baita jokalari batek partida osoa jokatzea.

# JOKALARI FALTAN

## Waterpolo taldeak arazoak ditu bi aste barru hasiko den denboraldi berriari ekiteko



NESKATXA DESBERDINDU ZAITEZ!
7 urtetik aurrerako neskatxen txokoa
Udazkena - Negua
beibi
babesa
Xanjuandei auzuen gatxauden!




mugi
kirolak
Enparan kalea 8
943 - 151004
egon geldirik!

# telefono zenbakiyek

**ERAKUNDEAK - TOKI PUBLIKOAK**

| | |
|---|---|
| Udaletxea | 15 72 00 |
| Udaltzaingoa | 15 13 13 |
| Suhiltzaileak | 112 |
| Azpeitia Lantzen | 15 71 83 |
| Iraurgi Lantzen | 85 11 00 |
| Nekazal Bulegoa | 81 24 85 |
| Iturritxiki Ludoteka | 15 11 79 |
| Zapo Txoko / GIB | 15 71 61 |
| INEM | 15 04 02 |
| Kiroldegia | 81 30 69 |
| Igerilekua | 81 41 21 |
| Ertzaintza-Azkoitia | 85 10 00 |
| Aitonena I | 81 51 71 |
| Aitonena II | 81 23 89 |
| Epaitegia | 81 25 55 |
| Ingurugiro Etxea | 81 24 48 |

**OSASUNA**

| | |
|---|---|
| Anbulategia | 81 51 00 |
| Anbulategia-larrialdiak | 81 12 01 |
| Asepeyo | 81 44 00 |
| Gurutze Gorria | 81 32 97 |
| DYA-Donostia | 46 46 22 |
| SOS Deiak | 112 |

**KOMUNIKABIDEAK**

| | |
|---|---|
| Uztarria herri aldizkaria | 15 03 58 |
| Azpeitian Zer? | 81 11 00 |
| Deia (berriemailea) | 72 57 75 |
| DV (berriemailea) | 15 09 94 |
| Egunkaria | 943-30 02 22 |
| Gara (Herriak Saila) | 943-31 69 99 |
| Arrate Irratia (berriemailea) | 81 26 32 |
| Loiola Herri Irratia | 81 44 58 |
| Euskadi Irratia | 943-01 23 00 |
| Kaito Telebista | 81 53 35 |

**ALDERDI POLITIKOAK**

| | |
|---|---|
| EAJ - PNV | 81 55 70 |
| Batasuna | 15 12 15 |
| EA | 81 00 11 |

**SINDIKATUAK**

| | |
|---|---|
| ELA | 81 34 46 |
| LAB | 15 13 56 |
| EHNE | 81 39 28 |

**IKASTETXEAK**

| | |
|---|---|
| Betharram | 81 16 68 |
| Ikasberri | 15 12 46 |
| Iraurgi | 81 02 10 |
| Jesusen Alabak | 81 22 49 |
| Karmelo Etxegarai | 81 26 65 |
| Milagrosa | 81 63 80 |
| Urola BHI | 15 02 28 |

**KULTURA - EUSKARA**

| | |
|---|---|
| Baite Euskara Elkartea | 15 03 58 |
| Euskara Patronatoa | 81 45 18 |
| Udal Euskaltegia | 81 19 47 |
| AEK | 15 10 89 |
| EHE | 15 10 89 |
| Udal Liburutegia | 15 71 95 |
| Loiolako Liburutegia | 81 65 08 |
| Uztarria Kultur Koordi. | 15 03 58 |
| Antxieta Etxea | 81 35 40 |
| Kontseilua | 943-59 12 00 |

**BESTERIK**

| | |
|---|---|
| UGLE (Urolako gay-lesbia.) | 273 posta |
| Euskaltel-informazioa | 900-84 00 65 |
| Telefónica-informazioa | 1003 |

# farmaziyek gauez

**URRIAK 1-6**
**Azpiazu (Azkoitia).** 85 29 89

**URRIAK 7-12-13-24**
**Garcia.** 81 12 74

**URRIAK 8-25**
**Zulaika.** 15 03 34

**URRIAK 9-21-26-27**
**Aseginolaza.** 81 13 50

**URRIAK 10-22**
**Beristain.** 81 19 49

**URRIAK 11-23**
**Etxebeste.** 81 59 74

**URRIAK 14-20**
**Gisasola (Azkoitia).** 85 12 35

# gune publikuek irikite

**UDALETXEA**
**Astegunak:** 9:00-13:30
**Larunbatak:** 9:00-13:00

**IXPIXIOA**
Egun osoz irekita

**IGERILEKUA**
**Astelehenak:** 14:00-21:00
**Beste astegunak:** 7:00-21:00
**Larunbatak:** 10:00-13:00, 16:00-20:00
**Igandeak:** 9:00-13:00
**Kanpokoa:** Ekaina arte itxita

**KIROLDEGIA**
**Astelehenak:** 9:00-13:00, 15:00-21:00
**Beste astegunak:** 15-00-21:00
**Larunbatak:** 10:00-13:00, 16:00-20:00

**UDAL LIBURUTEGIA**
**Astegunak:** 10:00-13:00, 16:00-20:00
**Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan:** astegunetan, 9:00-13:00

# autobusen ordutegiyek

## JOATEKO

**AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA**
**Astegunak:** 6:50 (1), 7:40 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)
**Larunbatak eta abuztuko astegunak:** 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15
**Igandeak eta jaiegunak:** 15:10, 19:15
**Enpresa:** La Guipuzcoana
**Oharrak:** 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

**AZPEITIA-EIBAR-BILBO**
**Astegunak:** 6:30, 13:00, 18:30
**Larunbatak:** 9:30, 14:30, 18:30
**Igandeak eta jaiegunak:** 9:30, 19:30
**Enpresa:** Pesa

**AZPEITIA-EIBAR-BILBO**
**Astegunak:** 6:35, 13:30
**Enpresa:** Piper Unibertsitate Elkartea

**AZPEITIA-AZKOITIA**
**Astegunak:** 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40
**Enpresa:** EuskoTren

**AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA**
**Astegunak:** 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10
**Asteburua eta jaiegunak:** 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05
**Enpresa:** EuskoTren
**Oharrak:** 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

**AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ**
**Astegunak:** 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10
**Asteburuak eta jaiegunak:** 15:40, 18:10, 20:10
**Enpresa:** EuskoTren

**AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitala)**
**Astegunak:** 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40
**Enpresa:** EuskoTren

**AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA**
**Astegunak:** 6:55, 13:55
**Asteburuak eta jaiegunak:** 6:55, 11:10
**Enpresa:** EuskoTren

## ITZULTZEKO

**DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA**
**Astegunak:** 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30
**Larunbatak eta abuztuko astegunak:** 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00
**Igandeak eta jaiegunak:** 18:00, 20:00
**Enpresa:** La Guipuzcoana
**Oharrak:** 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

**BILBO-EIBAR-AZPEITIA**
**Astegunak:** 10:30, 14:30, 21:00
**Larunbatak:** 9:30, 14:30, 21:00
**Igandeak eta jaiegunak:** 9:30, 12:30, 21:00
**Enpresa:** Pesa

**LEIOA-BILBO-AZPEITIA**
**Astegunak:** 14:00, 20:00
**Enpresa:** Piper Unibertsitate Elkartea

**AZKOITIA-AZPEITIA**
**Astegunak:** 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00
**Asteburuak eta jaiegunak:** 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55
**Enpresa:** EuskoTren

**ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA**
**Astegunak:** 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00
**Asteburua eta jaiegunak:** 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15
**Enpresa:** EuskoTren
**Oharrak:** 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

**ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA**
**Astegunak:** 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45
**Asteburuak eta jaiegunak:** 16:30, 19:00, 21:00
**Enpresa:** EuskoTren

**ZUMARRAGA (hospitala)-AZPEITIA**
**Astegunak:** 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30
**Asteburuak eta jaiegunak:** 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45
**Enpresa:** EuskoTren

**TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA**
**Astegunak:** 9:30, 18:30
**Asteburuak eta jaiegunak:** 9:30, 12:00
**Enpresa:** EuskoTren

**GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Aldalur | 85 27 18 | Pesa | 902 10 12 10 |
| EuskoTren | 15 06 77 | Piper Unibertsitate Elkartea | 85 25 87 |
| La Guipuzcoana | 85 11 59 | Taxiak | 81 13 07 |

# Azpeitiko merkatu txikiye


**1. ETXEBIZITZAK**
1.1. Saldu
1.2. Erosi
1.3. Errentan eman
1.4. Errentan hartu
1.5. Etxeak osatu
1.6. Bestelakoak

**2. LOKALAK**
2.1. Saldu
2.2. Erosi
2.3. Errentan eman
2.4. Errentan hartu
2.5. Bestelakoak

**3. GARAJEAK**
3.1. Saldu
3.2. Erosi
3.3. Errentan eman
3.4. Errentan hartu

**4. LANA**
4.1. Eskaintza
4.2. Eskaera
4.3. Bestelakoak

**5. MOTORRA**
5.1. Saldu
5.2. Erosi
5.3. Errentan
5.4. Bestelakoak

**6. BIDAIAK**
6.1. Europa
6.2. Mundua

**7. DENETARIK**
7.1. Saldu
7.2. Erosi
7.3. Errentan eman
7.4. Errentan hartu
7.5. Bestelakoak


**deitu**
**15 03 58**
e-maila:
uztarria@topagunea.com

- Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.
- Uztarriak ez du iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Aldaketak adierazi Uztarriari.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 1.1. SALDU

- **Soreasu.** Hiru logela, bainugela, egongela eta traste lekua. Oso eguzkitsua. Salneurria: 81.337 euro. Telefono zenbakiak: 943 - 15 12 85 edo 943 - 81 22 99.
- **Eliz kalea.** Eraikitzen ari diren etxebizitzak. Egongela, bi-hiru logela, sukaldea, jangela, bi bainugela eta traste lekua. Telefono zenbakiak: 943 - 89 40 84 edo 636 97 43 20.

### 1.4. ERRENTAN HARTU

- **Azpeitian.** Apartamentu, estudio edo pisu bat errentan hartuko nuke. Bankuko langilea. Telefonoa: 658 71 13 44.

## 2. LOKALAK

### 2.1. SALDU

- **Plaza Nagusia.** Lehenengo pisua. Telefonoa: 943 - 46 29 31.
- **Harzubia Hiribidean.** 41. zkian. Telefonoa: 943 81 28 00.

### 2.3. ERRENTAN EMAN

- **Iñaki Azpiazu kalea.** Telefonoak: 943 - 81 18 00 edo 943 - 81 02 94.
- **Enparantza Nagusian.** Lehen pisua, arkupetan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.
- **Juan XXIII.** 7. zenbakian. Telefonoak: 943 - 81 22 85 edo 943 - 81 28 97.
- **Landeta.** Lan Mobel aurrean. Telefonoa: 943 - 81 11 07.
- **Landeta.** Telefonoa: 943 - 81 10 77.
- **Landeta.** Asepeyo-ren ondoan. Telefonoak: 943 - 81 17 59 edo 943 - 81 19 58.

## 3. GARAJEAK

### 3.1. SALDU

- **Arana Goikoa.** 5. zenbakian. Telefonoa: 943 - 58 10 42.
- **Santutxo.** 10. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 07 29.

### 3.3. ERRENTAN EMAN

- **Foru Ibilbidean.** 2. zenbakian. Telefonoa: 943 81 03 25.

## 4. LANA

### 4.1. ESKAINTZA

- **Zientzia eta teknologia irakaslea.** Azpeitian. Eskatzen dena da: Magisteritza, psikopedagogia edo antzeko ikasketak izatea, B1 gida-baimena edukitzea, 30-45 urte artekoa izatea, euskaraz ondo jakitea eta hiru urteko esperientzia izatea antzeko lanean. Eskaintzen dena: 10 hilabeteko kontratua. www.lanbide.net. 88403/5 eskaintza.

## 5. MOTORRA

### 5.1. SALDU

- **Autoa.** Jeep. SS-AL. Telefonoa: 943 - 81 35 00.
- **Autoa.** Mercedes 190. SS-AH matrikuladuna. Gorria. Telefonoa: 652 77 78 86.
- **Motoa.** Kawasaki GTX 600R. Egoera onean. Telefonoak: 605 71 24 73 edo 943 - 76 64 01.
- **Motoa.** Montesa Cota 315. 1999. urtekoa. Egoera onean. Telefonoak: 605 71 24 73 edo 943 - 76 64 01.
- **Autoa.** BMW 325 TD. Lau urte. Zuria. Aire egokitu digitala. Trakzio kontrola. Airbag-a. Telefono zenbakia: 653 72 74 55. Inazio.

**• Etxebizitza salgai.** Jose Artetxe auzoan, 12. zenbakian, lehen pisua salgai da. Eraiki berri diren etxebizitzetako bat da. Informazio gehiagorako telefono zenbakia: 943 - 15 07 51.

**• Errepideetako garbitzaileak.** Azkoitiko enpresa batek errepide garbitzaile aritzeko lan eskaintza egin du. Eskatzen da: Urola bailaran bizi eta B1 gida-baimena izatea. Eskaintzen da: hiru hilabeteko kontratua. Lan eskaintza honetan izena emateko: www.lanbide.net. 87636/2.

## 7. DENETARIK

### 7.1. SALDU

- **Pianoa.** Modu onean dago salgai. Telefono zenbakia: 652 76 15 52. Iñaki.

### 7.2. EROSI

- **Txanponak.** Txanpon zaharrak erosiko nituzke. Telefono zenbakia honokoa da: 639 - 82 27 90. Pello.
- **Egurra.** Botatako egurra, aritza, gaztaina, pinua, ohol zaharra eta urritza enborrak erosiko nituzke. Telefonoak: 943 - 81 34 74 edo 943 - 81 45 70.

### 7.5. BESTELAKOAK

- **Klase partikularrak.** D.B.H., lehen hezkuntza eta alor guztiak. Telefonoak: 943 - 81 63 97 edo 657 77 74 24.
- **Ingelerako klaseak.** Ingelera filologian lizentziaduna naiz, eta ingelerako ikastaroak ematen esperientzia daukat. Maila guztietako klaseak ematen dira. Telefonoa: 943 - 15 00 89. Irene.


PILDAIN
inmobiliaria
lizkale, 22•Tf.943-812167•pildain@jet.es

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA
Tel.: 943 81 47 12

TABERNA
LOKOTX
Telfnoa.: 943 151086
Enparantza Nagusia

IRENE ALTUNA
Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak
Etxeetarako Zerbitzua Dugu
Telf.: 943 81 51 87
Loiola-Bide 25 - AZPEITIA


AMAiA TABERNA
Pintxo bereziak eta giro jatorra
alde zaharra
Urritizkina, 943 150472 ◆ Erdi kale, 13




argazkilaye: Itsasi

# Itsasi, 25 urteko ibilbidea dantzan

● **AURKEZPENA.** Irailaren 14an, Aitonenako aretoa jendez gainezka zela, Itsasi Dantza Taldearen ibilbidea jasotzen duten liburua eta bideoa aurkeztu ziren Itsasiren 25. urteurreneko ekitaldien barruan. Liburuaren egileak Nekane Larrañaga eta Joxe Luis Aizpuru dira, taldeko kide ohiak. Bideoaren egileak, berriz, Xabier Briz (Itsasiko kide ohia) eta Agustin Lizarralde dira. Biak salgai daude Iratzar, Martinez, Eklipse eta Belaetxe liburudendetan.


1


2


3



4



5



**1. AURREKARIAK.**
1926. urteko argazkia. Dantzari azpeitiarrak Eskustan. Pedro Etxeberria *Pedrotxo,* lehen lerroan, eskuinetik bigarrena.

**2. HASIERAK.**
1977ko Saninazioetako umeen egunean egin zuen bere lehen emanaldia Itsasi taldeak. Iñaki Letamendia, ikurrina astintzen.

**3. TTUNTTURROAK.**
Itsasiko ttuntturroen taldea.

**4. ATZERRIAN.**
Parisen, Sidmouthetik bueltan (Erresuma Batua). 1987. urtea.

**5. HERRIARI BEGIRA.**
Zinta dantza. Azpeitia Dantzan 2000.

**6. HERRIKO BESTE TALDEEKIN.**
Zuhaitzari omenaldia dantzatzen, Maiatza Dantzanen. 1987an plazan.



6







**7. GAUR EGUN.** Gaur eguneko Itsasi Dantza Taldeko musikariak.

**8. KONTRAPAS-MUSETA.** Gipuzkoako dantza. 25 urteko ibilbidean, handik eta hemendik ikasiz, batak eta besteak erakutsiz jaso ditu gaur egun bere altxorra osatzen duten dantzak.

**9. EZPATA DANTZA.** Gipuzkoako dantza. Itsasi dantza taldeak, sortu zenetik, Euskal Herriko osoko dantzak landu eta ikasi ditu.



# GALTZEN DUGUNAZ

Gizakiok xelebreak gara. Nork uka dezake? Zenbaitetan urteak eta urteak egon gaitezke besterik gabe *irauten* —horrela esatea zilegi bada— eta, halako batean, gure bizitza osoa une bakar batean pilatzen da, bortitz eta nahasi.

Diotenez, hiltzera zigortuak daudenek askoz biziagoak ikusten omen dituzte koloreak, soinuak, begiradak. Bizitza ihesi doan horietan ohartzen omen dira zerua zein urdina den; zein ederra txorien kanta entzutea. Besteok... Besteok itsu antzean gabiltzala ematen du ez gutxitan.

Adibideak ez dira urri. Aurreko batean, esaterako, *New Age* tipoko aldizkari horietako bat ikusten ari nintzen, denbora pasa. Badakizue: elikagai naturalak, osasuna, erlaxatzeko moduak, bidaiak... Horrelakoak. Ez naiz gogoratzen zein aldizkari zen zehazki. Auskalo, horrelako piloa dago-eta. Kontua da erreportajeetako batean argazki mordoska zetorrela, hango eta hemengo paraje ederrekin. Postaletan baizik existitzen ez diren ia ezinezko lekuak ziren. Haietako bat gustatu zitzaidan bereziki. Zuhaitz hostotsuez inguraturiko ibaiertz bat ikusten zen, gardena eta lasaigarria. Zuhaitzen adarrak, makurtuta, ura ukitzen zuten, eta pare bat hegazti exotiko —hori iruditu zitzaidan— ikusten ziren albo batean. Hauxe lekua, pentsatu nuen. Gustura joango nintzen hara. Argazki-oinean lekuaren izena azaltzen zen. Irakurri nuenean zur eta lur gelditu nintzen.

Koadrilako bat neukan alboan. Argazkia erakutsi nion, zer iruditzen zitzaion galdetzeko, baina ez nion argazki-oina erakutsi. Koadrilakoa, ni bezala, miretsita gelditu zen. Zein leku ederra! Hara joaterik bagenu! Argazki-oina erakutsi nion orduan. Aho zabalik geratu zen. Argazkia, azken batean, Lasaokoa baitzen; ibaia, Urola! Eutsi horri. Zenbat aldiz ez ote ginen pasatuko paraje haren albotik? Baina ez ginen jabetu, itxura zenez. Edo ez genuen, okerragoa zena, jabetu nahi izan.

Eskarmentu ederra izan genuen egun hartan. Zerbait egitea erabaki genuen. Gertuko lekuak berriro *ikustea* pentsatu genuen. Edo, behintzat, beste era batera egitea. Bizikleta hartu eta pixka bat ibili ginen, inguru hurbileko toki ederren bila. Hara eta hona, Nuarbeko urtegira iritsi ginen. Berpiztuak izan nahi zuten begiekin begiratzen ari ginela, bi auto etorri ziren. Zazpi-zortzi kanpotar jaitsi ziren, irribarretsu, gustura. Haietako batek gida ematen zuen. Liburu bat atera eta aztertu egin zuen. Bai, aurrean zutena Nuarbeko urtegia zen.

**OHITURA.** Ohiturak moldatzen du bizitza. Zergatik ez hautatu ohitura ederrenak?

Lagunak eta biok suposatu genuen gure antzera zetozela: lekuaz gozatzera, bizitza mirestera. Ia, ia. Argazki-kamerak atera zituzten eta bizpahiru argazki aterako zuen bakoitzak. Lekua ederra zela esan zioten elkarri, eta gida ematen zuenak marka bat egin zuen liburuan, agian lekua ikusia zutela gogoratzeko. Irribarre gehiago egin, autoetan sartu, eta beste lekuren baten bila joan ziren. Bost minutu egingo zituzten han. Asko jota.

Horrela ikusita, kanpotik eta hotzean, nahiko tristea zela erabaki genuen. Baina era berean gogoratzen ginen gu geu ere antzera ibiltzen ginela batzuetan. Zenbait lagun Italiara joan ginenean, adibidez, hango katedral, eliza eta monumentu guztiak ikusi ondoren konturatu ginen gutako gehienok ez genuela Loiolako Santutegia barrutik ezagutzen. Ño.

Bagenuen zer pentsatua. Eta zer ikusia.



| As. | At. | Az. | Os. | Os. | La. | Ig. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

# Bizitza duten monumentuak, Juan Joxe Agirreren begietan

• **EKITALDIA:** *Zuhaitzen Omenez*. Juan Joxe Agirreren argazkien erakusketa • **EGUNA:** Urriaren 4an ireki eta urriaren 18a arte egongo da • **ORDUA:** Lan egunetan 18:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara • **TOKIA:** Betharramdarren elizatxoan • **ANTOLATZAILEA:** Azpeitiko Argazki Elkartea.

**Nerea Uranga** / *Zuhaitzen Omenez*, halaxe deitu du Juan Joxe Agirrek, berak, osatu duen argazki bilduma. Urteetako lanaren fruitua da Betharramdarren elizan erakusgai izango dena. “Badira hiru hamarkada paisaiarekin eta naturarekin harreman estua izaten hasi nintzela; hori dela eta, zuhaitzen inguruko gaiak grina eta poztasun handienak sortu ditu nigan”.

Eta zergatik zuhaitzak argazkietako irudi, argazkietako gai? Zuhaitzei ohore egin nahi izan die Juan Joxe Agirrek, hain ederki erabiltzen dakien argazki kamerarekin. “Natura hain era okerrean darabilgun garai honetan, argazki erakusketa hau hainbeste onura dakarzkiguten eta hain gutxi eskaintzen diegun izakien omenaldia izatea nahi dut”, dio argazkilariak. Zuhaitzek gizakioi eskaintzen diguten horretan guztian errepara dezagun, zuhaitz horien itzalak, koloreak eta abarrak jaso ditu paperean. “Ez dugu ahaztu behar beraiei esker arnasten dugula, beren fruituak jaten ditugula, udan beren itzala eta neguan beren egurra erabiltzen dugula; gainera, urtaro desberdinetan erakusten diguten paregabeko kolore sorta... Eta dena, musutruk!”.

Juan Joxe Agirre argazkilariak gai ugari landu izan du, baina naturaren edertasun eta ezaugarrietan begia jartzeko duen zaletasuna ezaguna da. Berak Uztarriari esan dion bezala, “pagadi eder bakartietan beren ezaugarriak, itxura, handitasuna, koloreak ikusiz paseatzeak asebetetzen” du.

## URRIAK 5 (larunbata)

• **ARGAZKIGINTZA.**
Euskal Herriko Argazki Elkarteen Topaketak. *Erakunde publiko eta pribatuek antolatutako argazki lehiaketak, erabili egiten al gaituzte argazkizaleoi?* gaiaren inguruko mahaingurua. 09:45ean. Xabi Oteroren hitzaldia, abenturazko argazkiak gai bezala hartuta. 11:00etan. Argazkigintza hitzaldia eta argazki erakusketa Betharrametan, 18:00etan. Izena ematea 30 euro da. Topaketak Betharrametan izango dira.

• **FUTBOLA.**
Hirugarren Maila: Lagun Onak-Baskonia. 17:00etan. Garmendipen.

## URRIAK 7 (astelehena)

• **ERAKUSKETA.**
Marian Elorzaren eskolako ikasleen lanen erakusketa. Urriaren 25a arte irekita izango da astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara. Antxieta Etxean.

## URRIAK 8 (asteartea)

• **IKASTAROA.**
Asertibitatea eta abildadeak formazio ikastaroaren hasiera. Udaleko Gizartekintza Sailak antolatuta. Ikastaroa Pepa Bojok emango du. 15:30ean eta 17.30ean. Aitonena I-eko areto nagusian.

## URRIAK 10 (osteguna)

• **IKASTAROA.**
Reflexoterapia ikastaroaren hasiera. Udaleko Gizartekintza Sailak antolatuta. Ikastaroa Zorion Insaustik emango du. 15:30etik 17:30era. Aitonena I-eko areto nagusian izango da.

## URRIAK 12 (larunbata)

• **MENDIA.**
Asteburuko mendi irteera Bardeetara eta Moncayora. Lagun Onak M.B.-k antolatuta. Aurrez izena eman behar da.

• **URTEMUGA.**
Burnibidearen Euskal Museoaren 7. urtemuga eta Burnibidearen Lagunen Eguna. Tren Museoan.

## URRIAK 14 (astelehena)

• **JUBILATUEN ASTEA.**
Txokolatada berezia. Aitonena I eta II-an. 18:00etan.

## URRIAK 15 (asteartea)

• **JUBILATUEN ASTEA.**
Joko azkarra. Aitonena I-ean. 16:00etan.

## URRIAK 16 (asteazkena)

• **JUBILATUEN ASTEA.**
Hitzaldia: *Oroimenaren sekretuak*. Hizlari, Saioa Lasa ariko da. Aitonena I-ean. 17:00etan.

• **HITZALDIA.**


LUBA
- AHOLKULARITZA FISKALA, LABORALA, KONTABLEA
- ASEGUROAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA
Enparan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

IONE – MAIKAR
estetikako azken teknikak
Enparan, 15-1
Tel. 813898

ODRIOZOLA ARDOAK
Julio Urquijo, 18 Tfnoa.: 85 00 11 AZKOITIA
Iñaki Azpiazu, 5 Tfnoa.: 15 13 16 AZPEITIA

ACADEMIA DE FRANCES
FRANTSES AKADEMIA
apunta zaitez!
allons y
15 00 92
Bustinzuriko Arrabala, 12 - 1

AIZPURU AUTOAK
PEUGEOT
Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59




Euskalkien inguruan ariko da Koldo Zuazo. Azpeitiko Baite Euskara Elkarteak antolatuta. 20:00etan. Aitonenan.

**URRIAK 17** (osteguna)

- **JUBILATUEN ASTEA.**
  Hitzaldia, oinordekotzak, testamentuak eta herentziak gaiaren inguruan. Hizlaria: Alejandra Murua. 17:00etan. Aitonena I-ean.

**URRIAK 18** (ostirala)

- **JUBILATUEN ASTEA.**
  Ibililadia Getarira (Gipuzkoa). Aitonenako zuzendaritza batzordeak antolatuta. Irteera plazatik. 16:30ean.

**URRIAK 19** (larunbata)

- **JUBILATUEN ASTEA.**
  Joko azkarra tutean. Aitonena II-an. 16:00etan.

**URRIAK 20** (igandea)

- **JUBILATUEN ASTEA.**
  Kalejira eta 11:00etan meza hildako jubilatuen alde. 12:00etan dantzariak eta ondoren hamaiketakoa Aitonena I-ean. 14:00etan Kirurin bazkaria.

**URRIAK 24** (osteguna)

- **FUTBOLA.**
  Hirugarren Maila: Lagun Onak-Eibar B. 17:00etan. Garmendipen.

**URRIAK 27** (igandea)

- **MENDIA.**
  Gaztetxoen Finalista Eguna. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 09:00etan.

**URRIAK 29** (asteartea)

- **IKASTAROA.**
  *Asertibitatea eta abildadeak* formazio ikastaroa. Udaleko Gizartekintza Sailak antolatuta. Pepa Bojo-k emango du. 15:30ean eta 17.30ean. Aitonena I-eko areto nagusian.

**Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:**

- **Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerra (Azpeitia)**
- **943 - 15 03 58 telefonoa / faxa**
- **uztarria@topagunea.com**




Lagunak

DUEN ORDUTEGIAGATIK
DITUEN ZENTROENGATIK
ESKAINTZEN DEN ARRETA BEREZIAGATIK
DUEN KALITATEAGATIK

**AZKOITIA**
Ibai ondo, 16
Tel.: 943 852034

**AZPEITIA**
Pablo VI, 20 behea
Tel.: 943 150816

# Jaione Badiola

Lanien Poloniyen

## Wroclaw-ra begiratue



- Poloniyen dao, hegoaldien, ta Silesia Beheko hiriburue da.
- Dresdetik (Alemaniye) ta Pragatik (Txekia) 250 kilometroa.
- 700.000 lagun bizi die bertan.
- Poloniera da hango hizkuntzie.
- Industritik bizi die: lokomotorie ta bagoiek, makineye, aparato elektrikuek... eitetik.
- Erlijiyo nagusiye katolikue da (%95), baino ortodoxuek, protestantiek ta bestelakuek'e badaude.

## "Etortzeako banekiyen polakue ikistie garrantzitsue zala"



MIKEL GARMENDIA

Oin hamalau hilebete Fagor Electrodomesticos S.Coop-ek eskeinitako aukerie onartu ta enpresiek han dun fabrikan dao lanien Jaione Badiola.

**• Lan iteko erie ezberdine al da?**

Kulture ta hizkuntze desberdinekuek geala esango nuke. Ta neretzat hor dao proiektu honen garrantziye, pertsonekiko harremanetan.

**• Zerrek harritu zaitu gehyen?**

Ein duen udera ederrak. Maietzien eguraldi ona hasi zan, eta irail arte ona ein du. Aurten 25-30 gradu izen ditugu. Hori bai, udazkena gogorra da, 15:30erako ilun dao, ta laster izozten du ibaye. Hiri erdigunien ta kanpokaldien daon ezberdinatasunek'e harritu nindun. Erdi-gunie oso *europeue* da. Jende ugari ibiltzen da ta biziye du. Baino kanpokaldie bestelakue da: etxe zarrak, grisek, berritu beharrien; karretera zaharrak, edozein lekura juteko orduek beher die... Ta hauen tartien McDrive ta zentro komertzial ikaragarriyek daude. Kontraste haundiye dao. Mercedesak eta Fiat 126ak batea ikusten die.

**• Ze mouz hizkuntziekin?**

Etortzeako banekiyen polakue ikistie garrantzitsue zala, baino etorritakuen ikusi nun derrigorrezkue nuela. Jende gutxik daki inglesez, ta iye inok ez españolez. Oso mugaute zaude harremanetako ta horreatik polako klasieta juten naiz. Klasietan oso gustoa nabil, ulertzen hasi naiz ta baite hitz eiten'e. Hizkuntze zaile da, benetan.

**• Aisialdiyen ze eiten dezu?**

Ez dauket denbora libre asko. Hiriyek aukera asko eskeintzen ditu: parrandako leku ederrak daude, zinien pelikulak bertsiyo originalien botatzen ditube, ta inglesezkuek eta españolezkuek ikusi leizket, kiroleako leku aproposak daude, ta musika, opera eta antzerki aukera bikainek daude.

**• Herri minik bai?**

Ezetz esatie gezurra izengo litzeke. Egiye esan, oso gustoa nao beste herrialde batien eoteko aukeriekin. Gainea, sarri bueltatzen naiz Urrustillea.

Leire Larrañaga

**HANGO JENDIE.** "Polakuek oso erlijiosuek die, zaharrak, helduek, gaztiek ta umiek, danak. Ta beayen herrialdekue danez, Atte Santue mirestu eiten debe"

# Ramon Goenaga

Lasao Altzariak-eko zuzendaria

# "LASAON LAN SISTEMA GUZTIA BEZEROEN NAHIA ASETZEAN DATZA"



Azpeitian dago Lasao altzari fabrika. Urteak daramatza bezeroen altzari nahiak asetzen: logelak, egongelak, txokoak, eta, oro har, etxe apainketarako gutizi mota guztiak. Egur trinkoa landu eta etxebizitzen nortasuna irudikatzen dute. Ramon Goenaga mintzo da Lasao altzari fabrikaz.

**• ALTZARIETAN ERE MODAK AGINTZEN AL DU?**

Nire ustez, modari ez jarraitzea da gaur egungo moda. Alegia, norberak bere gustuko etxea erosten duenean, bere era, gustu eta ahalmenen arabera egokitzen du. Erabat lan pertsonala da, atseginez egiten dena.

**• ALTZARIAK EROSTERAKOAN, JENDEAK ZER NAHI DUEN BA AL DAKI, EDO ZUEN GOMENDIOEN ZAIN EGON OHI DA?**

Iragarkiak eta komunikazio saila dugunez, jendeak ezagutzen gaitu. Beraz, badakite egun trinkoa dela gure berezitasunetako bat, eta horren bila etorri ohi dira. Dena den, altzarien inguruko kultura benetan urria dela iruditzen zait.

**• ZEIN DA UNE HONETAN LASAO LANTEGIAN DUZUEN GAUZA BITXIENA?**

Altzarien forman baino gehiago materialetan dago bure berezitasuna, egur trinkoa erabiltzea jada bitxia baita. Gaur merkatuan bigarren mailako materialak erabiltzen dira: aglomeratua, melamina edo papera... Hauek merkeagoak dira erosterakoan, baina luzaroan ahulegiak dira. Guk kalitate oneko egur trinkoa darabilkigu: esaterako, gaztainondoa, gerezia eta haritza. Lasaok egindako altzariak, hamar edo hogei urtez ongi irauteko prestaturik daude, agian bizitza osorako dira. Beraz, askoz merkeagoak dira luzaroan. Altzariei amaieran ematen diegun tratamendua ere guztiz berezia da: barniz eta produktu ekologikoak. Hori dela eta, gure lantegiak ISO 14001 ziurtagiria du, gure altzarietan eta lan prozesu guztian kutsadurarik ez dela sortzen bermatzen duena.

**• AURRERAKUNTZA NABARIA, EZTA?**

Bai, noski. Eta gure borondatez erabakitakoak. Legearen aurretik, agian. Beraz, jada ez dago aitzaki teknikorik altzari garbia erosteko, ezta hainbat lantegiren kutsadurak jasateko ere. Gure seme-alabei etorkizun hobea eskaini nahi badiegu, bidea eraikia dago. Bideratzerik nahi ez duenik bada, hor konpon bere erantzunkizunak.

**• KEXARIK JASOTZEN AL DUZUE BEZEROENGANDIK?**

Apaltasun osoz esan dezaket askoz ugariagoak direla jasotzen ditugun zorionak. Baina gehiago estimatzen dugu kexaren bat dugunean. Kexa oparia da guretzat. Kexa hori konpondu eta ongi bideratzean, bezeroa betirako gureganatu dugula ziur baikaude. ISO 9001 kalitatea dugunez, ongi frogatua dugu arrazoi hau egia dela. Lasaon lan sistema guztia bezeroen nahia asetzean datza.

MUEBLE MACIZO LASAO® EGURREZKO ALTZARIAK

Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA 124 Postakutxa Tel. 943 15 11 82 - Faxa 943 15 10 98
E-mail: informacion@lasao.com **www.lasao.com**



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50
